



Jardueren Oroitidazkia 2007

SABINO ARANA FUNDAZIOA
Bilbao, 2008ko urtarrila

AURKIBIDEA

1.- EUSKADI-GALIZA-CATALUNYA EGITARAU BEREZIA.

1.1.- “Galiza, catalunya, Euskadi: Estatu nazioanitza erronka”

1.2.- “Las voces del diálogo. Poesía y política en el medio siglo” liburuaren aurkezpena

2.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA

3.- ARGITALPENAK

4.- HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

5.- LURRALDE IRASKUNDEAK

5.1.- XABIER DE LANDABURU IRASKUNDEA

5.2.- LUIS DE ELEIZALDE IRASKUNDEA

5.3.- UZTURRE PRESTAKUNTZA IRASKUNDEA

6.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZATOKIA

- MINTEGIAK

- HITZALDIAK

7.- GAZTERIA

8.- JOLAS ETA KULTUR JARDUERAK

9.- EUSKARA SUSTATZEKO EGITARAUAK

9.1.- Sabino Arana Fundazioaren euskara-plana

9.2.- Bertso paperen lehiaketa

9.3.- “Euskararen Legea, 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan” jardunaldia.

10.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIKO HARREMANAK

11.-EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

12.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

13.- AGIRITEGIAREN ETA MUSEOAREN DOHAINTZA-EMAILEAK

14.- 2007KO JARDUEREN EGUTEGIA

1.- EUSKADI-GALIZA-CATALUNYA EGITARAU BEREZIA

1.1.- “GALIZA, CATALUNYA, EUSKADI: ESTATU NAZIKOANITZA ERRONKA”

Izenburu orokor gisa “GALIZA, EUSKADI, CATALUNYA: Estatu nazioanitza erronka” zuela, otsailaren 21ean eta martxoaren 7an eta 21ean, hitzaldi bana eskaini zuten Artur Mas-ek, Anxo Quintanak eta Josu Jon Imazek eta. Zeinek bere mintzaldian, Estatu espainola eraldatu eta Estatu nazioanitza lortzeko bidetik aurrera egin beharraz duten ikuspegia eman zuten.

Hitzaldi-sorta Artur Mas Convergència Democràtica de Catalunya (CDC) idazkari nagusiak ireki zuen; oso itxaropentsu agertu zen, beraren irudiko, Auzitegi Konstituzionalak kalterik gabe utziko baitu Estatut, halako eraz ezen, “Osorio, Kataluniako herriak sostengatu bezala, geratuko den”. Orobat, ohartarazi zuen, baldin eta ebazpen horrek artikulu “neuralgiko” batzuk ukituko balitu, Estatutua leporatzeko litzatekeela eta “Kataluniaren eta Estatuaren arteko harremanetan arazoa larria” sorraraziko litzatekeela.

Martxoaren 7an, Anxo Quintana Galiziako Xuntako presidenteorde eta BNGko eledun nazionalak Galiziako Autonomia Estatutu berria, Partido Popularraren aurkaritzagatik blokeatua, prestatzeko negoziazio-prozesuaz mintzatu zen.

BNGko buruzagiak adierazi zuen, hobe dela negoziazioa “*aparkatzea*” oraingo egoera politikoan aldaketarik gertatzen ez den bitartean. Ildo horretan Partido Popularrari “*eskuin muturreko edozein erakundek egin ohi bezala aurkaritza-egoera eutsiezineko estrategia*” sustatzen ibiltzea egotzi zion. Azaldu zuen bezala, aurkaritza-egoera horrek eragina izan zuen Estatutu galiziarra erreformatzeko akordiora heltzeko aukeran.

PSOEk Galiziako autogobernuaren gainean duen jarreraz galdeturik, Quintanak adierazi zuen indar politiko horrek orain frogatu dezakeela bere “borondate autonomista”, Galiziar eskuduntza gehiago transferitzeko Xuntaren eta Estatuko Gobernuaren arteko negoziatioetan. Galiziako Gobernuak epe laburrera eskatuko dituen zazpi eskuduntzako sortaren barruan Itsas Segurtasunarena, Lan Ikuskaritzarena eta artxibo eta bibliotekena daude; azken horiek Estatuarenak badira ere, Autonomia Erkidegoak kudeatuta.

Hitzaldian BNGko eledun nazionala “*XIX. mendeari dagokion Estatua-Nazioa ereduarekin amaitzea*”ren alde agertu zen, ezen horrek, gainera, “*Galizia bigarren mailara zokoratzen du*”.

Martxoaren 21ean EAJren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakari Josu Jon Imazek itxi zuen Sabino Arana Fundazioak antolatutako “*GALIZA, EUSKADI, CATALUNYA: Estatu nazioanitza erronka*” hitzaldi-sorta. Buruzagi jelkidea, “espainiar gizartearen baitan aliatuak bilatzea”aren alde agertu zen, hots, kataluniar eta galiziarretatik

haratago, Estatu anitza lortzeko eta “euskal auziari irtenbidea emateko”. Gainera, adierazi zuen “inork ez duela alde egitea pentsatzen den bezalako onartzen duen ingurunetik”.

Imazek gogorarazi zuen EAJk, CiUk eta BNGk osatzen duten oraingo Galeuscat aliantzaren helburua “bere lurralde-politika, identitate, kultura eta hizkuntza adierazpenean azken buruan pluralismoa onartzen ez duen Estatu espainol hori eraldatzea” dela.

Haren iritziz, helburu hori, Estatu plurala, lortzeko, “bide bi daude: konbikzioarena eta elkarlanarena, alde batetik eta, aurka egitearena, bestetik”. Gu herri txikia gara eta adimena eta jakinduria erabili behar ditugu” adierazi zuen, ondoren gogorarazteko “euskaldunaren estrategia itunarena izan dela beti, negoziazioarena, elkarlanarena”.

Ildo horretan, zehaztu zuen ezen, jarraitu beharreko bidea konbikzioarena eta elkarlanarena dela, azken batez euskal gizartearen barne itunarena eta Estatuarekiko kanpo itunarena”. Horrexegatik, bada, “aliatu estrategikoekin elkarlana egitearen alde agertu zen, bai halaber Galeuscateko bazkideekin eta “espainiar gizarteko irekitasunaren aldeko sektore demokratikoekin, errealitateari aurreiritzirik gabe begiratzen dioten eta irtenbideak bilatzen saiatzen diren guztiekin”.

1.2.- Liburu-aurkezpena: “LAS VOCES DEL DIÁLOGO. POESÍA Y POLÍTICA EN EL MEDIO SIGLO”.

Martxoaren 14an, asteazkenarekin, Madrileko Espai Cultural Blanquerna "Las voces del diálogo. Poesía y política en el medio siglo" liburua aurkezteko agertoki izan zen; liburuaren egilea Jordi Amat da.

Ekitaldian, egileaz beraz gain, Valentí Puig-ek, Juan M. Atutxak eta Antoni Vives-ek parte hartu zuten.

“Elkarrizketaren ahotsak” lanak lehenengo bider azaltzen du dokumentuz, grinaz eta zorrotasunez frankismoaren historia intelektual liluragarriaren kapitulu bat, mende osoko literato katalanen eta espainolen arteko harremanaren unerik emankorrena. Liburuak, kronikatik eta saiakeratik duelarik, falangista kamusatuek, unibertsitario engaiatuek, historialari jarkiek eta gerra galdu baina hitza atxiki zuten poetek konpartitutako itxaropen baten xehetasunak agerrarazten ditu.

2.- BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA

*** EAJ-REN FRANKISMOAREN GARAIKO ALDIZKARIAK**

Egitasmo honen helburua, eginbidean eta 2008an argitaratzeko asmoarekin, Euzko Alderdi Jeltzaleak frankismoaren garaian atera zituen aldizkako argitalpenak

aztertzea da: haien deskribapena egin, bilakaera behatu, jeltzaleen antolaketa-bilbean zuten eginkizuna aztertu eta euskal abertzaletasunaren ibilbidea ezagutzeko iturri historiko gisa duten garrantzia ikusi.

Horretarako, 1937 hartu da abiapuntutzat, urte horretan agertu baitzen erbesteko lehenengo agerkari jelkidea -Aberri Aldez (Mexiko)-, eta muga-urtetzat, 1975, urte horrexetan hasi baitzen trantsizioaren etapa politiko berria. Azterlanak, orobat, kontuan ditu, bai Penintsula aldeko Euskal Herrian klandestinitatean argitaratutako aldizkako agerkariak, bai Amerikako eta Europako erbestaldian argitaratu zirenak.

Ikerketa-egitasmo hau gauzatzeko, besteak beste, Abertzaletasunaren Agiritegi Historikoak erbestaldiko prentsa jelkideaz daukan agiri-funts garrantzitsua baliatzen ari gara. Horrenbestez, gainera, Sabino Arana Fundazioaren helburuetako bat betetzen lagunduko da: Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak gordeta dituen agiri-funtsak erabiltzea eta ezagutaraztea.

*** UMEEN EBAKUAZIOAREN LXX. URTEURRENA: INGALATERRA**

Argitaratze-helburua 2008an ateratzea delarik, 1936-1939ko gerran Ingalaterrara ebakuazioan eroandako umeen erbestaldiaz diharduen ikerlan bat egiten ari gara.

Ebakuatuen elkartek ere, zeintzuek Euskadin zein Londresen funtzionatzen duten, halako ezaugarriak dituen argitalpen batekiko interesa agertu dute.

Gure ingurunean dauden agiri-aukerek ekarri dute, hain zuzen ere, ikerlan horren gertakuntza-lanari ekin diezaiogun; ikerketaren emaitza haur-erbestaldiari eta haiekin joan ziren pertsona helduei buruzko beste lan bat izango da.

Horretarako, lan trinkoa egiten ari gara ohiko agiri-iturrietan, zeintzuk ahozko, iturrien, hemerografia-iturrien eta besteren gaineko azterketekin osatzen baitira, gertakariari bere alderdi guztietatik oratzea helburu.

*** ENPLEGUAREKIKO POLITIKA PUBLIKOEN AZTERKETA**

Ikerlan hau Ikeirekin elkarlanean lehendik hasitako lan-ildoari jarraitzen zaio; europar eta euskal testuinguruetako gastu publikoa aztertuz eta azterketa horretatik ondorioztatutako orientazioak ikusiz abiarazi zen.

Beste ikerlan honen helburua sustapen-politika publikoak aztertzea da, ekonomiaren hazkundea eta enplegua erraztea, sustatzea edo susperraraztea xede, tresnak baliatuz edo beroriek gizarte-antolaera horietan (eta, beraz, europar gizarte-ereduaren helburu publikoarekin bateratzen direnak) bereziki aplikatuz enplegua eta ekonomia dinamizatzearen ikuspegitik.

*** EUSKAL ELIZA**

Onaindia Artxiboko dokumentazioaren edizioa, 1936 eta 1945 bitarteko urteei dagokiena. Une honetan langai dugun dokumentazioa Onaindia Agiritegian eta, hein txikiagoan, Abertzaletasunaren Agiritegian dago gordeta, baina Vatikanoko Agiritegia bezalako beste agiritegi batzuetakoarekin ere osatuko da.

Horretarako, Artea Arratian kokatuta dagoen Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko gure teknikari batek bi hilabetez egon behar izan du Erroman Vatikanoko Artxibategietan ikerketak egiten (Alberto Onaindiari dagokion dokumentazioa).

3.- ARGITALPENAK

*** LIBURU AURKEZPENA: “NACIONALISMO VASCO EN ELORRIO”**

Elorrioko (Bizkaia) EAJ-PNVk eta Gure Ondarea Elkarte Kulturalak erakunde jeltzaleak herri horretan daramatzen ehun urteak ospatzeko antolatu dituzten ekitaldien artean, apirilaren 13an *“Nacionalismo Vasco en Elorrio (1894-1937)”* liburua aurkeztu zuten.

Roman Berriozabal Azpitartek (Elorrio, 1957) egin eta Sabino Arana Fundazioak argitaratutako ikerketa-lan horren asmoa da, euskal abertzaletasunaren lehenengo garaietatik Elorrioren euren gogo-asmo legitimo eta demokratikoak hedatzen lan egin zuten ehunka elorriarren gomuta berreskuratzea da.

Aztertutako aldia oso zehatza da, ezen 1894an abiatzen da eta 1937an amaitzen. Lehenengo data, herrian abertzaletasuna agertzearen gainean dauden lehenengo albisteak sortzen diren uneari dagokio. Bigarren data, bestalde, nola ez, Gerra Zibilak eta, ondorioz, altxatutako indarrek Elorrio okupatu zuten uneak ezartzen dute. Beraz, Elorrioko abertzaletasunaren lehenengo 43 urteen historia da.

*** Liburu-aurkezpena: “UN NUEVO 31. IDEOLOGÍA Y ESTRATEGIA DEL GOBIERNO DE EUZKADI DURANTE LA SEGUNDA GUERRA MUNDIAL A TRAVÉS DE LA CORRESPONDENCIA DE JOSÉ ANTONIO AGUIRRE Y MANUEL IRUJO”**

Sabino Arana Fundazioak iazko ekainaren 28an *“Un nuevo 31. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo”* liburua aurkeztu zuen. Lana bera hainbat iturritatik egindako bilketa-lan bat da; zeregin horretan Josu Legarreta Euskal Giza Taldeekiko Harremanetarako zuzendariak, Renon dagoen Nevadako, Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko irakasle Xabier Irujok eta Iñaki Goiogana historialariak jardun dute, eta berorien xedea, irakurleari, 1939 eta 1945 bitartean, II. Mundu Gerraren denboran, Jose Antonio Agirrek eta Manuel Irujok elkarrekin izandako posta-trukea hurbiltzea..

Agirrek eta Irujok aipatu urteetan elkarri bidalitako gutun, txosten eta idazki zenbait hautatu dira, gero, horren guztiaren osagarri, liburuko protagonistek garaikide izan zituzten beste pertsona nabarmen historiko batzuei bidalitako beste idazki batzuk, baita sasoi hartako beste buruzagi batzuekikoak ere: Indalecio Prieto, Alfonso R. Castelao, Jesus Maria Leizaola, Eliodoro de la Torre, Manu de la Sota, Joseba Rezola, Jose Ignacio Lizaso, besteak beste.

Liburuak ehunetik gora dokumentu ditu eranskin ugarirekin. Jatorrizkoa errespetatuz transkribatu dira, orrialde-oineko ohar argigarriak besterik ez baitira erantsi. Obraren osagarri gisa, pertsona haien eta ukitzen den sasoiaren —II. Mundu Gerra— gaineko historia-hitzaurrea eta izenen eta gaien aurkibideak ere erantsi dira.

***Liburu-aurkezpena: “ESTACIÓN EUROPA. LA POLÍTICA EUROPEÍSTA DEL PNV EN EL EXILIO (1945-1977)”.**

Leyre Arrieta historialariak Tecnos eta Deustuko Unibertsitatearekin batera argitaratutako obra honek EAJk 1945etik —II. Mundu Gerra hasi eta Europarentzat beste formulazio bat prestatzen hasi zen urtea— 1977ra arte —Iruñeko Batzarra egin eta aipatu alderdiarentzat beste aldi bat markatu zuen data— izandako politika europazalea aztertzen du.

Liburua Bilbon aurkeztu zen azaroaren 6an.

4.- “HERMES” PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

2007 osoan Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen pentsamendu eta historia aldizkariaren beste lau zenbaki plazaratu dira:

Zk. berezia (urtarrila): Bake-prozesua gaur
22. zk. (otsaila): Lurzorua eta hirigintza
23. zk. (maiatza): Prostituzioa, erregulatu gabeko negozioa
24. zk. (urria): Euskal Y-a

Zenbaki berezian Julian Thomas Hottinger, Roelf Meyer, Matteo Zuppi, Daniel Innerarity eta Paddy Woodworth, ETAk 2006ko martxoan Su Eten Iraunkorra adierazi ostean hasitako bake-prozesuaren geldialdi-egoeraz eta hilketa politikora gehiago ez itzultzeko gertatu beharko liratekeen baldintzez mintzatu ziren.

Hermes aldizkariaren 22. zenbakiaren gai nagusia “Lurzorua eta etxebizitza” izan zen; artikulu banatan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok, Bizkaiko Foru Aldundiko Ahalduen Nagusiorde eta Hirigintza eta Udal Harremanen foru-diputatu Patxi Sierra-Sesumagak, Hondarribiko alkate Borja Jauregik eta Ricardo Sanz Cebrián abokatuak Lurzorua eta Hirigintzari buruzko Lege berriaren berritasun nagusiak aztertu zituzten.

Aldizkariaren 23. zenbakiak prostituzioaren gainean dagoen gizarte-debateari ekin zion. Izenburu orokortzat “Prostituzioa, erregulatu gabeko negozioa” zutela, gai horrezaz idatzi zuten Eva Engman, Luleäko (Suedia) Iris emakumeentzako babes-etxeko lehendakari eta emakume-trafikoaren kontrako Baltikoko Lankidetzarako Erakundeko kideak; Nora Levinton Madrileko Unibertsitate Autonomoan Psikoanalisian doktoreak; Josep M^a Tamarit, Lleidako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedradunak; Hetaira prostituten elkarteko Concha García; Maricel Chavarria kataluniar kazetariak, eta Marian Arias prostitutei laguntzeko Askabide elkarteko psikologoak.

Hermesen 24. zenbakiak sakon aztertu zituen “Euskal Y-a” eraikitzeak dakartzan hobariak eta aukerak. Gure Herriaren garapen estrategikorako funtsezkotzat jotzen den trenbide-azpiegitura berri horren alderdi giltzarriei buruz dituzten planteamenduak azaldu dizkigute Nuria López de Gereñu Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saileko Sailburuak, Andrés López Pita Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Trenbideetako Katedradunak eta Jon Azua, Enovatinglab, S.L.ko lehendakari eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde ohiak.

Urteko azken Hermes horretan Txema Monterok eta Koldo Mediavillak, hau da, aldizkariaren zuzendarikideek, agur esan zuten, zazpi urtean ezagutzari bere adierazpide guztietan balioa eman ondoren eta Jose Antonio Rodriguez Ranz zuzendari berriari ongietorria emanaz.

5.- LURRALDE IRASKUNDEAK

Lurralde-iraskundeen bitartez egin ditugun jarduerak hurrengo hauek izan dira:

5.1.- Xabier de Landaburu iraskundea

5.1.1.- Arabar gazteek duten elkartasun-maila aztertzeke topaketa

Sabino Arana Fundazioaren Xabier Landaburu iraskundeak mahainguru bat antolatu zuen Gasteizen, urtarrilaren 18an, arabar gizarteak eta, zehazki, gazteek garapenerako egitasmoetan duten konpromiso-mailaz, boluntarioriaz eta behartsuenekiko elkartasunaz hitz egiteko eta eztabaidatzeko.

Izenburutzat “Lankidetzaren erronkak gizarte solidarioarentzat” izan zuen elkarraldian honako hauek izan ziren hizlari: Jose Angel Cuerda, Gasteizko alkate ohia eta Intermoneko kontseilukidea; Aitor Gabilondo, Gasteizko Udalaren Garapenari Laguntzeko Lantaldeko arduraduna, eta Natalia Rodriguez, Euskadiko GGKEen Koordinakundekoa eta Jendaurreko Eraginerako arduraduna.

Ekimenaren helburua izan zen, arabar gizartearen erradiografia bat egitea, hark lankidetz-egitasmoetan duen engaiamendu-maila, aurkezten zaizkien aukerak, aurkitzen dituzten oztopoak eta, halaber, boluntario ereduaren ezaugarriak jakitea. Hortaz, bada, beharrezkoa zen, bateko, herritarren eta, batez ere, gazteen ikuspuntuak eta, besteko, azken horiek betetzen duten eginkizuna mundu gero eta

globalizatuago batean, gizarte kapitalistaren eta garatu bakoen arteko haustura areagotu den mundu honetan.

Horrenbestez, kontua izan zen, ekimen berriak ekar litzaketen ondoreak ateratzea, gero haiek garapenerako lankidetzaren arloan abian ipintzeko..

Jose Angel Cuerda Gasteizko alkate ohi eta Intermoneko kontseilukideak, gaur egun gazteriak lankidetzaren egitasmoekin duen konpromisoaz eta gizarte globalizatu eta kapitalista batean gazteek dituzten aukerez hitz egin zuen.

Aitor Gabilondok, Gasteizko Udalaren Garapenari Laguntzeko Lantaldeko arduradunak, bere aldetik, "Lankidetzak toki-administrazioaren ikuspegitik dituen aukerak" azaldu zituen

Eta, azkenik, Natalia Rodriguez Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Jendaurreko Eraginerako arduradunak lankidetzaren GGKEen euren ikuspuntutik nola ikusten den izan zuen hizpide.

5.1.2.- Xabier Landabururen jaiotzaren urteurrena

Xabier de Landaburu Fernández de Betoño (Gasteiz, 1907 – Paris, 1963) arabar buruzagi jeltzale historikoaren jaiotzaren mendeurrena betetzen dela eta, 2007an ikerlan bat garatu da, gero, 2008ko otsailean, gauzatuko dena, zehazki, haren bizitzan, lanean eta gogo-asmo europazaleetan zehar eramango gaituzten erakusketa bat eta liburu katalogo bat izango dira.

Izan ere, Xabier Landaburu beste eredu bat da, euren gaitasun apartan eta gizarte eta ikasketa prestakuntzan bermaturik, herriaren eta ideia batzuen alde ongizatezko etorkizuna sakrifikatu zuten euskaldun haien belaunaldiaren barruan. Ehun urte bete dira Euzko Alderdi Jeltzaleko politikari hori jaio zenetik; Kongresuko Diputatua izan zen Arabatik, Euzkadiko Jaurlaritzako Lehendakariordea erbestaldian eta euskal abertzaletasunaren teorikoetako bat bere artikuluekin eta idatzi zuen "La causa del Pueblo Vasco" liburuarekin. Gainera, Agirre lehendakariarekin batera, erbestean ordurako, NEIen (Nazioarte Lantalde Berriak) sorreran parte hartu zuen, zuzendaritza-taldearen osakide bat ere izanik.

Eta bere bizitzaren erdia baino gehiago erbestean igaro bazuen ere, eta bertan hil 1963an, inoiz ez zen ahaztu bere arabar jatorriaz.

Erakusketaren arduraduna Alex Ugalde Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako irakaslea da, eta hura panelez, erakuts beira-arasez, argazkiz eta dokumentuz osatuta egongo da. Bizi izan zen 55 urteetan jardueraren ugaritan ibili zen, haren askotarako gaitasuna agertzen digutenak, hots: abokatua, kazetaria, idazlea eta publizista, kultur erakunde zenbaiten eragilea, egunkari eta aldizkarietako zutabegilea, Euzko Alderdi Jeltzaleko burukidea, Gorteetako diputatua, Euzkadiko Jaurlaritzaren ordezkaria Parisen, Agirre lehendakariaren

laguntzailea nazioarteko gaietan, Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligaren dinamizatzailea, euskal elkarte europazale eta federalisten bultzatzaile eta arduradunetako bat, nazioarteko kristau-demokraziako kidea, Radio Euzkadiko esataria eta Euzkadiko Jaurlaritzako Lehendakarioa.

Informazio hori guztiori biltzeko, hainbat agiritegitan, nazionaletan zein estatukoetan, ikertu behar izan da, baita beste instituzio batzuetan ere, eta familiako zenbait seniderekiko bilerak egin ere bai.

Orobat, erakusketaren osagarri izan nahi duen hitzaldi-egutegi bat prestatzeko lanetan ere jardun dugu.

5.2.- Luis de Eleizalde iraskundea

- **Presidentetzarako hauteskundeak Frantzian. Dena erabakitzeke.**

Frantzian apirilaren 22an, lehenengo txandan, eta maiatzaren 6an, bigarrenean, egin ziren presidentetzarako hauteskundeen kariatara, Sabino Arana Fundazioaren Luis Eleizalde Iraskundea mahainguru bat antolatu apirilaren 19an. Ekitaldia Dr. Camino Liburutegian (Abuztuaren 31/k, 36 - Donostia) izan zen buruz gai horri buruz hitz egin eta eztabaidatzeko

Topaketa EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradun Juan José Alvarez Rubiok arteztu zuen eta Allende-Boutin (France 3) eta Patrick Pepin (Radio Franceko Ombudsman eta Lilleko Kazetaritza Eskolako zuzendaria) kazetariak parte hartuko zuten.

Hiru adituek presidentetzarako hautagaien, batez ere lau hautagai nagusiak - Segolène Royal, Bayrou, Sarkozy eta Le Pen-, haien programak eta, hautagaietako bata edo besteak irabazteak, Euskadin izan litzakeen eragina eta ekarri litzakeen ondorioak izan zituzten mintzagai nagusi.

- Ahozko tailerrak Azkoitian eta Azpeitian.

5.3. Uzturre Iraskundea

6.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZATOKIA

MINTEGIAK:

6.1.- "Prostituzioa: erregulatu gabeko negozioa"

Hogeita hamarretik gora aditu bildu ziren martxoaren 1ean Bilboko Sheraton hotelera Sabino Arana Fundaziok antolatutako mintegi baten kariz, prostituzioaz eztabaidatzeko eta gai horretaz dagoen gizarte-debateari ekiteko, izan ere zenbait prozedura modu planteatzen dira, hots: debekua, erregulazioa eta deuseztatzea. Europako inguruneko beste herrialde batzuetako esperientziak ere aztertu ziren.

“Prostituzioa: erregulatu gabeko negozioa” izenburupean garatu zen lan-jardunaldiko txosten nagusiak honako hauek aurkeztu dituzte: Eva Engman, Luleåko (Suedia) Iris emakumeentzako babes-etxeko lehendakaria eta emakume-trafikoaren kontrako Baltikoko Lankidetzarako Erakundeko kidea; Nora Levinton, Psikoanalisian doktorea Madrileko Unibertsitate Autonomoan, eta Josep M^a Tamarit, Lleidako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna.

Orobat, jakinarazpen bana aurkeztu zuten Hetaira prostituten elkarteko Concha Garciak, Maricel Chavarria kataluniar kazetariak eta Marian Arias prostitutei laguntzeko Askabide Elkarteko psikologoak.

6.2.- “Euskal trenbide sare berria: etorkizun-erronka Euskadirentzat”

Martxoaren 29an Nuria López de Gereñu Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saileko Sailburuak, Andrés López Pita Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Trenbideetako Katedradunak eta Jon Azua, Enovatinglab, S.L.ko lehendakari eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde ohiak mintegi honetara etorritako norbanakoek eta hedabideek euskal trenbide-sare berria abian ipintzeaz egin zizkieten galderei erantzun zieten.

Ildo horretan, sailburuak nabarmendu zuen, *gizarte aurreratu batek ezin egin diezaiokeela uko, ez halakorik egin behar, komunikazioari, pertsonen mugikortasunari, ez merkantzia-garraioaren modernizazioaren hobekuntzari eta modernizazioari, “ezta ezin diezaieke uko egin azpiegitura berriek ahalbidetzen dituzten garapen eta hazkunde aukerei, eta hor bidaiarien eta merkantzien garraio mistorako egokitutako abiadura handirako trenbide-azpiegiturek ahalbidetzen dituztenak sartzen dira”.*

Garraio eta Herri Lan Saileko Sailburuaren ustez, *“uko horrek, hain zuzen ere, gizarte osoak bizi ahal izateko behar duen oxigenoa saihestea esan nahiko luke. Eta halakoa, gaur egun, XXI. mendearen hasieran, funtsezkoa da gurea bezalako herri batentzat, hots: azalera txikia baina Arku Atlantikoaren aurkientza estrategiko batean kokatua”.* Are gehiago, *“ezin da eraiki ezein herririk isolamendutik”* azpimarratu zuen.

“Y”a ez da, inola ere, apeta hutsa, *“ezta unean uneko gobernuaren alde bateko ezein erabaki ere”* baietsi zuen Lopez de Gereñuk. Ondoren, Sailburuak, Euskal “Y” definitzerakoan esan du kate-maila bat dela, *“Europaren Hego Ekialderako proiektatutako abiadura handiko trenbide-ardatzekoetan balio erantsi handiena*

duena”. Egitasmoa lehentasunezkoa da EBrentzat, eta 3. zk. gisa dago definituta, Alemanian, 1944ko Essen-en egindako Goi Bileran.

Beste alde batetik, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko trenbideetako katedradun Andrés López Pitak prestazio handiko lineen arloan azken 25 urteotan Europak bildu duen esperientziaren analisia egin zuen. Ondoren, interesgarri izan daitezkeen euskal Y”arekiko alderdirik garrantzitsuenak laburki adierazi ostean, azpiegiturak portuekin lotzea aldeztu zuen, garraio-sisteman portuek duten eginkizuna indartzen duten trenbide-lotura kalitatezkoek zuzkitu behar direla.

Azkenik, Enovatinglab, S.L.ko lehendakari eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde ohi Jon Azuak euskal “Y” egitasmoaz hitz egitean, garraio-azpiegituraren (bereziki trenbidezkoaren) ikuspuntutik dakarren aurrerapen garrantzitsu gisa ez ezik, *Euskal Hiriaren garapen berritzailea antolatze*ko eremua sortzea helburu, *“ereti-leiho”* handi bat gisa ere oratuzion. *“Euskal “Y”ak oraindik hasi baino egin ez diren Euroerregioen barruan eremu berri bat egituratzea erraztuko du Euskal Hiria edo Erregioa deitzen diogun horretaranzko bidean”*, nabarmendu zuen.

Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde ohiaren irudiko, *“ezaugarri horiek edukiko dituen eremu berri batek gobernatzeko eta kudeatzeko eskema berriak eskatzen ditu, baita gure “Hiria”ren jokabidea eraldatuko duen prozesu aberats eta ugari honetan zehar motibatze*ko eta *parte hartze*ko tresna zenbait ere ”.

6.3.- “Lurzorua eta etxebizitza, bizitzeko modukoak” (II)”

Sabino Arana Fundazioak 2006ko azaroaren 27an antolatu zuen *“Lurzorua eta etxebizitza, bizitzeko modukoak”* gogoeta-jardunaldiaren jarraipen gisa, 2007ko apirilaren 17an beste topaketa bat antolatu genuen gaian sakontzeko; baina bigarren horretan debatean bereziki lurzoruari buruz bakarrik eztabaidatu zen.

Lan-jardunaldia Sabino Arana Fundazioaren egoitzan (Kale Nagusia, 29 – 5.a, Bilbo) egin zen. Artezkaria Txema Montero Jn., Gogoeta eta Elkarrizketarako Mintzagunearen koordinatzailea, izango zen, eta Anton Agirregoitia arkitekto Jn.ak egin zuen debatego puntuen sarrera.

6.4.- Mintegia: “Afrika. Bakea, adiskidetzea eta demokrazia”

Azaroaren 14an Sabino Arana Fundazioaren egoitzan mintegi bat antolatu zen *“Afrika. Bakea, adiskidetzea era demokrazia”* hitzaldi-sortaren barruan. Jardunaldia goizez izan zen eta hizlariak izan ziren Pax Romanako mundu osorako lehendakari Jean Nsonjiba Lokenga eta Karlos Perez de Armiño, EHUKo Nazioarteko Harremanetako irakasle tiutular eta Hegoako kidea, hogeita hamar partehartzailearen aurrean

6.5.- “Europa bidegurutzean: Batasunaren Itun Berria”

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta 2003 eta 2006 bitartean Kataluniako Generalitateko President izandako Pasquall Maragall elkarrekin egon ziren joan den azaroaren 20an Bilbon, Sabino Arana Fundazioak Europar Batasunaren Itun Berriaz antolatutako jardunaldietan.

Zein bere hitzaldian, bat etorri ziren biak iriztean “ezin utzizkoa dela” Europak Katalunia eta Euskadi bezalako estatu gabeko nazioak ezagutzea.

Izenburu orokortzat “Europa bidegurutzean: Batasunaren Itun Berria” zuela, jardunaldi osoan zehar europar Itun berriaren alderdirik nabarmenenak aztertu ziren. Hain zuzen ere, aipatu Ituna joan den abenduaren 13an sinatu da eta Konstituzio huts eginaren ordezkoa izango da.

Ibarretxe eta Maragall-ez gain, jardunaldian Antonio Martins da Cruz enbaxadore eta Portugaleko Atzerri Gaietarako ministro ohiak, Álvaro Gil-Robles-ek, 1999-2006 epealdian Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako komisarioak, eta José Martín y Pérez de Nanclares Errioxako Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetarako errektoreordeak ere parte hartu zuten.

Ibarretxe lehendakariak bere hitzaldian azaldu zuen iruditzen zaiola “zerbait mugitzen ari dela”, Europako Kontseiluak estatu bako nazioak daudela onartu ondoren, eta “kontsultak bide ona” direla gatazkak konpontzeko. Gainera, “geometria aldakorra” errebindikatu zuen Europar Batasunerako, halako eraz ezen, “identitatearekiko begirunea” berma dezan

Orobat, eskatu zuen euskal Ekonomia Ituna ere Ituneko klausula batean jaso dadila Europara esportatzeko.

Pasqual Maragall-ek, bere aldetik, uste du Lisboako Ituna ez-nahikoa dela, zeren, besteak beste, ez baitu onartzen Estatua eta Nazioa ez direla gauza bera, nahiz eta, bestalde, onartu zuen Europa eraikitzen segitzeko balioko duela.

Horrexegatik, adierazi zuen, beharrezkoa dela Europako Konstituzioan Estatuaren eta Nazioaren arteko bereizkuntza egin dadin, eta erantsi zuen, Itun Berria “alde batetik oso konplikatu dela eta, bestetik, aipatutako hori bezalako gabeziak dituela, eskaintzen dituen irtenbideak hizkera bihur samarrean azaltzen baititu eta gauza xumeak ezta ukitu ere ez baititu egiten”.

Beste alde batetik, Álvaro Gil Robles-ek, 1999-2006 epealdian Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako komisarioak, arrazakeria eta xenofobia gero eta handiagoak direlarik, balioak berreskuratu daitezela aldarrikatu zuen eta, halaber, ekina ekonomi alderdian bakarrik ez egiteko, ezen “bata ez da ibiliko bestea gabe”.

Gil-Robles-en aburuz, “balio demokratikoekiko begiruneari atxikita jardutea ezinbestekoa dela eta pertsonen funtsezko eskubide batzuk ezagutu behar direla pentsatzen dutenentzat, Europar Batasuna, ekonomi balioez ez ezik, bera

arteztuko duten printzipioz osatutako oinarri sendoaz zuzkitu beharra izan da eguneroko gudua”.

Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedradun eta Errioxako Unibertsitateko Nazioarteko eta Institutio Harremanetarako errektoreorde José Martín y Pérez de Nancrales-ek Erreforma Itun berriak dakartzan berritasunen azterketa bat eskaini zuen. Zehazkiago, testu arauemaile berriak Europar Konstituzioaren aldean dituen forma eta prozedura desberdintasun nabarmenen eta, ez hainbestean, desberdintasun materialen ezaugarri batzuk azaldu zituen.

Azkenik, Antonio Martins da Cruz Portugaleko Atzerri Gaietarako ministro ohiak esan zuen, “abenduko honen 13an sinatuko den Lisboako Itun berriarekin aldi negatibo bat, Frantziako eta Herbeheretako erreferendumei Konstituzio Itunari esandako ezetzarekin hasitakoa, amaitzen dela Europan”.

Martins da Cruz-en arabera, “beste ziklo bat irekitzen da Europar Batasunaren bizitzan”. Institutio-arkitektura berri delarik, “Estatu kideek eta, gainera, Batzordeak eta Europar Parlamentuak orain hobeto hel diezaiekete Europak aurrean dituen politika, ekonomi eta gizarte erronkei”.

Arratsaldeko saioan, atek itxita, arloko hogeita hamar bat adituk gaiak eztabaidatzen segitu zuten eta Batasunarentzat esparru berria bilatzeko prozesuarekin segitu beharraz eta horretarako borondateaz dituzten ikusmoldeak ere azaldu zituzten.

HITZALDIAK ETA MAHAINGURUAK

6.6.- Mahaingurua: “NAFARROAREN “EZETZA” HEGO EUSKAL HERRIKO ESTATUTUARI. IRUÑEKO 1932KO BATZARRAREN 75. URTEURRENA”

Sabino Arana Fundazioak mahainguru bat antolatu zuen 2007ko ekainaren 19an, 1932an Iruñean Hego Euskal Herrirako Estatutua eztabaidatu zen Batzar hura oroitzeko bere 75. urteurrenean. Autonomia-esparru erkidea planteatzen zuen batzar hura lau lurraldeetako (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa) diputazioetako Errepublikar Gestoreek sustatu zuten.

Jakina den bezala, nafar ordezkarien ezetzak porrotera eraman zuen ekimen hura, hartara aurreko urtean hasitako estatutu-prozesua itxiz. Prozesu hartan hiru estatutu-egitasmo erkide aurkeztu ziren, Nafarroarako soilik zen bertz batez gain.

Efemeride hori oroitzea helburu, Sabino Arana Fundazioak mahainguru bat antolatu zuen, orduan bezala, ekainaren 19an, batzarraldi hartan debatitu zen egitasmoan inplizituki zeuden alderdi ugari aztertzeko.

Izenburutzat *“Nafarroaren “ezetza” Hego Euskal Herriko Estatutuari. Iruñeko 1932ko Batzarraren 75. urteurrena”* izan zuelarik, mahainguruan parte hartu zuten: Santiago de Pablo EHUko Historia Garaikideko katedradunak; Fernando

Mikelarena Historian doktore eta Zaragozako Unibertsitateko irakasleak; Emilio Majuelo Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) katedradunak eta, solas-zuzendari gisa, Jose Ignacio Lacasta-Zabalza Zaragozako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako katedradunak.

6.7.- Hitzaldi-sorta: “EUSKADI MUNDUAN. HIRU LEHENDAKARIREN GOGOETAK”

Sabino Arana Fundazioak azken hiru lehendakariak (Garaikoetxea, Ardanza eta Ibarretxe) bakoitzak bere aldetik bizi izandako esperientzia pertsonalak eta politikoak baliatu nahi izan ditu, gero Euskadiren etorkizunaz gogoeta egiteko eta munduan izan dezakeen eta izan behar duen lekua zehazten lagunduko duen lekua definitzeko.

Helburu horrekin antolatu zuen “Euskadi munduan. Hiru lehendakariaren gogoeta” hitzaldi-sorta, zein Bilboko Euskalduna Jauregian egin baitzen. Carlos Garaikoetxea lehendakariak urriaren 10ean, asteazkenarekin, hitz egin zuen. Ondoren, urriaren 23an, asteartearekin, Jose Antonio Ardanza lehendakaria mintzatu zen eta, hitzaldi-sorta ixteko, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak azaroaren 7an, asteazkenarekin, jardun zuen.

Hiru hitzaldiak zuzenean entzun ahal izan ziren Interneten, Sabino Arana Fundazioaren web orriaren (www.sabinoarana.org) bitartez. Gainera, lehendakari bakoitzaren hitzaldiaren ondoren, galderen txandan, Argentinako Euskal Etxeen ordezkari batekin konektatu zen bideokonferentziaren bidez.

Carlos Garaikoetxea lehendakariak adierazi zuen “bakearen bila saiatzen jarraitu behar dela”. Hala ere, oharazi zuen, ETAK jardueran eta Batasunako jendeak indarkeriaren preso segitzen duten bitartean “ezinezkoa” dela *abertzaleen arteko* akordioa, xede-asmo politikoak elkar hartuta burutzen saiatzeko.

Orobat, erakunde terroristari eskatu zion, desagertu dadila eta *abertzaleen arteko* politika “operatiboa” ahalbidetu dezala.

Jose Antonio Ardanza lehendakariak, bestalde, adierazi zuen "erabat legitimoa" zela oraingo lehendakariak, Juan Jose Ibarretxek, trazatutako ibilbidea indarkeriaren amaia eta euskal alderdien eta Espainiako Gobernuaren arteko akordioa lortzeko. Bilboko Euskalduna jauregian eskainitako hitzaldian Ardanza lehentasuna eman zion euskaldun guztien arteko akordio anitzari, Espainiako Gobernuarekin balizko lehia ibiltzearen aldean.

Ardanzak politika egiterakoan dauden muga zeharkaezin bi aipatu zituen. Bata, euskal gizartearen pluraltasuna. Horrezaz denaz bezainbatean, adierazi zuen “herri honetan aurrera egin nahi izatera, bertan errotutako identitate eta naziotasun sentsibilitate biak ados jarri behar garela”. Lehendakariak adierazi zuen, Euskadi Estatuan kokatzeari zentzuzko irtenbidea emateko, aurrena euskaldunen arteko elkar ulertze motaren bat eskaini behar dela. “Gure izate nahiak eta besteekin harremanak izatekoak itunduak eta partekatuak behar dute izan, beste edozein lekutan baino lehenago, euskal esparruan”, zehaztu zuen.

Ardanzak aipatutako bigarren muga zeharkaezina indarkeriarena da. Ildo horretan, esan zuen “ hitz eginezko amaieraren ikusmuga irekita geratu behar da baldintza egokiak gertatzen direnerako.

Azkenik, hitzaldi-sorta ixtea egokitu zitzaionak, Ibarretxe lehendakariak, nabarmendu zuen ezen, euskal gizarteari dagokiola bete etorkizuna erabakitzea, 2008ko urrirako proposatzen duen kontsultaren bitartez, eta esan zuen, hori egin egingo zela indarkeriak iraun arren, zeren “ezin onartu baitaiteke ETAk marka dezan agenda eta esan dezan zertaz eta noiz” hitz egin daitekeen.

Ibarretxek baita adierazi zuen ere, ez duela ulertzen Gobernu Zentralean eta alderdi ez abertzaleetan eragiten duen gaitzespena eta aldeztu zuen hura “erabat legezkoa, zilegia eta demokratikoa dela”.

Lehendakariak ekin egin zuen, euskal herritarrak izango direla Euskadiren etorkizun politikoa erabakiko dutenak.

Baita ohartarazi zuen ere, Batasunarekin biltzeagatik salatuta egoteak ez diola eragotziko “aurrera joatea”. “Zinez mingarria bada ere, halaxe baita, irtenbideak bilatzen ahalegintzearren elkarrizketak egin izanaren ondorioz zigor-arloko salatua izatea, bai esan gura dut, gai horrek, den mingarria izanda ere, ez duela eragotziko abiatutako bide politikoari neure indar guztiekin jarraitu nakion”, adierazi zuen.

Ildo horretan, ohartarazi zuen, baldi eta baten batek, “guztiekin batera irtenbideak bilatzen saiatzearen “errugabetasuna naturaltasun osoz” defenditzeko duen asmotik desbideratu dadin nahi badu, “oso oker” dagoela. Ildo horretan esan zuen, inork ez duela lortuko “aurrerantz, lanean, irtenbideak bilatzen” segitzeari utzi diezaion.

6.8.- Mahaingurua: “LORAFNAREN XXV. URTEURRENA: FORALTASUN ESTATIKOA”

Nafarroako Foru Araubidea Berrezartzeko eta Hobetzeko Lege Organikoa (LORAFNA) promulgatu izanaren XXV. urteurrena ospatzen zelarik, Sabino Arana Fundazioak eta Tuterako Nafarren Etxeak mahainguru bat antolatu zuten Iruñean, bertzeak bertze, Lege Organikoa bera gertatzeko prozesuaren ezaugarriak eta, halaber, beraren lorpenak, dituen lege-mugapenak, arau-garapena eta estatutu-arau horren egungo gabeziak bezalako alderdiak aztertzeko.

Elkarraldia “LORAFNAREN XXV. URTEURRENA: FORALTASUN ESTATIKOA” izenburupean egin zen eta hurrengo hauek parte hartu zuen: Jose Antonio Urbiola, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea 1979 eta 1981 bitartean; Fermin Ciaurriz, letratua, Nafarroako Parlamentuko parlamentaria, EAren ordezkari gisa, zenbait legegintzalditan eta Parlamentuko lehen lehendakariordea 1991-1995 bitartean, eta Alvaro Baraibar Historian doktorea.

Fermín Ciauurriz abokatu eta 1983 eta 2000 bitartean foru-parlamentariak adierazi zuen, *“Forua Hobetzeko Lege Organikoa deritzanaren bidez, frankismo ostean eskuin nafarraren —PSOE ere atxiki zitzaionlarik— nahia eta erabakia eszenaratu zirela, hots: euskal abertzaletasuna gure erkidegorako egitasmo instituzionaletik atuztea eta baztertzea*. Eta zera ere erantsi zuen: *“25 urteren ondoren berriz egiaztatu da printzipio hori indarrean dagoela”, “berriki osatu den Gobernuaren eratzeko prozesuan”* frogaturik geratu bezala.

Jose Antonio Urbiolak, bere aldetik, LORAFNA gertatzeko prozesua izan zuen hizpide, bertatik bertarako lekuko izaki. Urbiolak gogoratu zuen, nola, diktadorea zendu zelarik, nabariki agertu zela, irudikarazi nahi zen gizarte kontserbadore eta immobilistaz arras bertzela, nafar gizarteak agitazio politiko eta sozial maila bat zuela. *“Kalea ez zen Fragaena, eta Fragak ezin onar zezakeen kalea berea izan ez izatea eta, are gutxiago, agitazio-gaitasun horrek arriskuan ezar zezala Nafarroari langoletan esleitzen zitzaion betekizuna”*; horrek errepresio-neurri sail ugari bat ekarri zuen”, adierazi zuen.

Behin *“kalea baketurik”, “langolet Nafarroari esleitutako betekizuna diseinatu eta betearazi ahal izan zuten”*, Urbiolaren irudiko, eta, halaber, *“kontra zituztela zekizkiten erakunde eta indar politiko guztiak baztertu”*, erantsi zuen.

Hartara, “Autonomia Estatutua bertzerik ezin izan daitekeen “Erreforma Lege” bat indarrean ezarri ahal izan zuten, *“baina Hobekuntza deitu zioten Erreferenduma ekiditeko”*, amaitu du.

Azkenik, Historian doktore Alvaro Baraibarek Nafarroa frankismotik jalgi berrian zegoen testuinguru ideologikoa hartu zuen gai nagusizat eta Nafarroan demokraziarako trantsizioak izan zituen giltzarri batzuk azaldu zituen.

6.9.- Hitzaldi-sorta: “AFRIKA. BAKEA, ADISKIDETZEA ETA DEMOKRAZIA”

Hitzaldi-ziklo hau afrikar labirinto korapilatsuaz sakonki hitz egitea eta Kontinentea osatzen duten erresumen konplexutasuna hobeto ulertzen laguntzea helburu antolatu zen. Afrikar kontinenteko politikari eta gizarte-ekintzaile nabarmen zenbaitek parte hartu zuten topaketa horiek Bilbon egin ziren iraila eta azaroa bitartean.

Hitzaldi-sorta Luis de Sebastián ekonomialari, idazle eta Afrikar Kontinentean adituak ireki zuen irailaren 18an, asteartearekin. Ondoren irailaren 27an, ostegunarekin, Francis Wodié Boli Kostako Langileen Alderdiko presidentek hitz egin zuen. Azaroaren 14an, asteazkenarekin, Jean Lokenga Pax Romanako mundu osorako lehendakari eta Nazio Batuen Sudaneko Eginkizunaren barruko Adingabeeb Babeserako aholkularia mintzatu zen eta azkenik, hitzaldi-sorta ixteko, azaroaren 28an Alcides Sakalak, Angolaren Erabateko Independentziarako Batasun Nazionalaren (UNITA) parlamentu-taldeko presidentek, jardun zuen.

Hitzaldi-sorta horren bidez, Afrikak gaur egun bizi duen azpigarapen-egoeraren kausetara eta Kontinentearen txirotzea ekarri duten indarrezko gatazka, despotismo eta ustelkeriara hurbildu gara. Hori guztia, herri kaltetu horien eskubideak, aukerak eta gaitasunak areagotu beharra dagoela nabarmentzeko.

7.- GAZTERIA

7.1.- Kirol selekzio autonomikoen gaineko txostena

Juantxo Landabera abokatu eta Kirol Zuzenbidean adituak egin du azterlan txosten hau; hilabete gutxi barru argitaratuko da.

Hurrengo gai hauek aztertzen dira, besteak beste: euskal futbol-selekzioaren aurrekari historikoak; "Euzkadi" eta "Euskal Herria" izenen aurrekari historikoak; oraingo esparru juridiko-politikoak; Autonomia Estatutu berriaren proiektua; Euskaltzaindiaren iritzi ofiziala eta "Euskadi eta Euskal Herria" gaiaren gaineko beste aipamen batzuk; beste organo eta erakunde ofizial batzuen izendadura; euskal federazioen jardun-lurraldea; euskal kirol selekzioen kontzeptua; kirol selekzioen ordezkartza-esparrua; Eusko Jaurlaritzak selekzio eta izen kontuetan kirol federazioen gainean dituen eskuduntzak; etab.

7.2.- Ahozko historiako tailerrak gazte eta eskola-umeentzat

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak Artea Arratian dituen instalazioak bisitatzera datozen ikastetxe guztientzat, abiatu duen jardueramultzoarekin jarraiki, 2007an sei historia-tailer egin dira..

Tailer horien bitartez lortu nahi den helburua da, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei, Euskadiren historiako zenbait gertaeratan aktore nabarmen gisa eta behatzaile kualifikatu gisa bizi eta jasan zutenaren gaineko iritziak adierazten eta euren bizipenak kontatzen dituzten pertsona askoren lekukotasunak entzuteko aukera eskaintzea.

Azalpenen osagarri gisa, bideoak ematen dira eta, gainera, aukera egoten da gazteek protagonistei galderak egiteko hizpide izandako garaiaz eta bertan bete zuten eginkizunaz..

8.- JOLAS ETA KULTUR JARDUERAK

8.1.- Sabino Arana Sarien Kultur Ekitaldia

Sabino Arana Sarien XVIII. aldiko saritutakoak izan ziren: erregimen frankistan euskara suspertzeko eta gordetzeko klandestinitatean lan egin zuten andereñoen kolektiboa; Aranzadi Zientzia Elkarte; TECNALIA Teknologia Korporazioa; Kepa Junkera trikitilaria eta Txirri, Mirri eta Txiribiton euskal pailazoak. Ekitaldia 2007ko urtarrilaren 28an ospatu zen.

Frankismoaren sasoiko andereñoen kolektiboari emandako saria Kontxita Beitiak eta Itziar Arzellusek jaso zuten, *“geure kultur nortasuna eta geure hizkuntza, euskara, biziberritzea bezain esparru garrantzitsuan klandestinitate eta jazarpen erregimen hartan frankismoaren aurka borrokatu ziren”* beste bederatzi emakumek lagunduta.

Beste alde batetik, Kepa Junkera, nazioarte mailako euskal musikaririk ezagunenetako bat, ere saritu zuen. Kepa Junkera nabarmenarazi duten gauzetako bat, trikitixa bezain musika-tresna tradizional bat jotzeko era berritzea izan da. *“Haren konposizioek, trikitixaren eta beste tresna eta erritmo batzuen nahasketa, unibertsaltasun eta mestizaia ariketa horiek, bost kontinenteetara zabaldu dute euskal musika tradizionala”*, meritu nahikoa eta gehiago sari hau jasotzeko.

Guztiok Txirri, Mirri eta Txiribiton izenekin ezagutzen baditugu ere, izatez benetan Xabier Otaegi, Jose Ignazio Ansorena eta Txema Vitoria dira. Euskarazko lehenengo pailazo-taldea. Sabino Arana Fundazioak *“orain dela 35 urte luze euren jarduerari ekin ziotenetik euskara txikien artean hedatzen, sustatzen eta zabaltzen egin duten ekarpena”* eskertu zien.

Jose Maria Echarri TECNALIAko presidentek jaso zuen saria Korporazioaren izenean, *“Berrikuntza Teknologikoaren bitartez Euskadiko ekonomi eta gizarte ingurunea garatzen egindako ekarpenagatik”*.

Eta azkenik, berdin egin zuen Jose Miguel Larrañagak, Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentek, *iaz 60. urteurrena ospatzen duenari, komunitate zientifikoarentzat nazioarteko erreferentzia gisa finkatuta dagoen Azterketa eta Ikerketa zentro honen jarduera eskertzeko*”. Gainera, Sabino Arana Fundazioak nahi du nabarmendu, halaber, *“Gerra Zibilean eta diktadura frankistan fusilatu eta desagerrarazitako pertsona ugarien gorpuzkinak berreskuratzen eta lurpetik ateratzen egindako zeregin iraunkor eta neurrigabeki emankorra. Lan eskerga, benetan, gehien sufritu zutenen memoria historikoa berreskuratzen”*.

8.2.- Durangoko Azoka.

Abenduaren 5etik 9ra Fundazioa beste behin egon zen, “stand” birekin, Durangon urtero egiten den euskal liburu eta disko azokan, Fundazioaren azken argitalpenak eta berritasunak erakusteko eta saltzeko.

9.- EUSKARA SUSTATZEKO EGITARAUAK

9.1.- Sabino Arana Fundazioaren Euskara Plana

Euskarari dagokionez, 2007 osoan Sabino Arana Fundazioak bere ahaleginen zatirik handiena bere esparru, jarduera eta egindako jakinarazpen guztietan euskal hizkuntzaren erabilpena normalizatzerara eta sendotzera zuzendu du.

Horrenbestez, Sabino Arana Fundazioaren urte askotarako Euskara Planaren helburua Fundazioak bere hasieratik bertatik euskaraz garatutako jarduera sendotzea eta Euskararen erabilpena, ahoz zein idatziz, areagotzea da, kanpo harremanetan batez ere, euskaraz ekoiztea sustatuz beti.

9.2.- Bertsopaperen lehiaketa

Gazteen artean euskara erabiltzea bultzatzeko eta sustatzeko garatzen dituen jardueren artean, Sabino Arana Fundazioak joan den ikasturtean laugarren "*bertso-paper lehiaketa*" ipini zuen abian, eta orain Lehen Hezkuntzako 2. zikloa eta DBHko 4. Maila bitartean, biak barne, ikasten ari diren Euskal Herri osoko eskola-umeei dago zuzenduta.

Sari-banaketa Tolosako Leidor antzokian egin zen apirilaren 21ean. Laugarrenaldi horretan Euskadi osoko 300etik gora eskola-umeak parte hartu zuten. Hamabi onenek, Lehiaketa osatzen duten lau kategorietatik hirunak, Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan Maria Atutxaren eta Tolosako alkate Jokin Bildarratzen eskutik jaso zituzten sariak.

Ekitaldia girotzeko, The Uski's surf-rock talde bizkaitarrak jardun zuen; euren "Barikun" izeneko azken (bigarrena) diskoko kantu batzuk jo zituzten.

Urretxindorra Ikastolako irakasle, idazle eta kontu kontari Antton Irustaren ardura izan zen kategoria bakoitzean irabazi zuten bertsolari gazteak aurkeztea.

Horrenbestez, A kategorian (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa) irabazlea Paul Iruretagoiena Rezola izan zen, Joxemiel Barandiaran Ikastetxekoa (Ataun). Bigarren eta hirugarren postuetan Bertol Murua Gorostegi, Samaniego H.I.

Ikastetxekoa (Tolosa), eta Oier Begiristain Txapartegi, Joxemiel Barandiaran Ikastetxekoa (Ataun), geratu ziren, hurrenez hurren.

B kategorian (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa) irabazlea Jone Alberdi Ballina izan zen, Urretxu-Zumarraga Ikastolakoa. Kategoria honetako bigarren sailkatua Maialen Akizu Bidegain, Gainzuri Ikastetxekoa (Urretxu), izan zen eta hirugarrena, Manex Lazkano Arandia, Albizturko Eskolakoa (Albiztur).

Hirugarren kategorian, C (DBHko 1.a eta 2.a) lanik onena Elene Lejarzegi Anakaberentzat izan zen, Resurrección Maria de Azkue Ikastolakoa (Lekeitio) bera, eta atzetik izan zituen Amaia Iturrioz Etxaniz, Urretxu Zumarraga Ikastolakoa eta Imanol Irazustabarrena Garmendia, Aralar Institutukoa (Alegia).

Azkenik, D kategorian (DBHko 3.a eta 4.a), Xabier Iturraspe Gandiaga, Resurrección Maria de Azkue Ikastolakoa (Lekeitio), izan zen irabazlea. Bigarren postuan Eneritz Arzallus Alustiza, Ikasberri Ikastolakoa (Azpeitia) geratu zen eta hirugarrenean, Izaro Zinkunegi Barandiaran, Azpeitiko ikastola bereko ikaslea.

Hamabi sarituek jasoko zuten saria lau eguneko bidaiak izan zen, bakoitza pertsona bik lagunduta; zehazki Valentziako Arte eta Zientzien Hirira eta Terra Mitica Gai Parkera joan ziren ekainaren azken aldera.

Gaur egun, dagoeneko abian da lehiaketaren V. aldia.

9.3.- Jardunaldia “EUSKARAREN LEGEA, 25 URTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN”

Joan den azaroaren 23an XI. Jagon Jardunaldia egin zen Euskaltzaindiaren egoitzan (Plaza Barria, 15, Bilbo), Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeak antolatuta. Hautatuko gaia “Euskararen Legea, 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan” izan zen. Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatutako jardunaldi horretan gogoeta egin zen, orain dela 25 urte onetsi zen 10/1982 “Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea”ren gaineko zenbait gairen inguruan.

Horrenbestez, zenbait alderdi aztertu ziren, hala nola: une hartako testuinguru historikoa, soziala eta politikoa; harrezkero Euskarak izan duen bilakaera, eta Autonomia Erkidegokoak ez diren euskal lurraldeen ikusmoldea, hots: Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.

Orobat, jardunaldian bertan *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz*, liburua ere aurkeztu zen. Euskaltzaindiak argitaratzen duen Jagon bildumako bosgarren liburukia da.

Liburua, nazioarteko eremuan Hizkuntza Zuzenbidearen arloko testu nagusien bilduma bat, vademecum tankerakoa, hain zuzen. Andres Iñigo Euskaltzaindiaren Jakin Saileko zuzendariak adierazi zuen bezala, lan horren helburua euskarari doakion corpus juridiko guztia biltzea izan da. Horrexegatik, bada, gure

hizkuntzaren aipamen juridikoa egiten duten eta sakabanatuta zeuden testu guztiak bildu eta euskaldunen eskura ipini dira.

Azkenik, Jardunaldian gorazarrea eskaini zitzaien duela 25 urte Euskararen Legea ontzen eta onetsi izan zedin lan egin zuten pertsoneri. Euskaltzaindiko eta Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, bai halaber, Hizkuntza Politikako Sailburuordeak, diploma oroigarri bana eman zieten, honako testu hau zekarrena: *“Euskararen erabilera normalizatzeko 10/82 Oinarrizko Legeak 25 urte bete dituen honetan, lege hori ontzen aritu ziren andre-gizonak omendu nahi ditugu. Har ezazu diploma hau, egin zenuen lanaren aitortpen eta esker onez. Bilbon, 2007ko azaroaren 23an.”* (En el 25º aniversario de la aprobación de la Ley Básica 10/82 de Normalización del Uso del Euskera deseamos rendir homenaje a quienes la hicieron posible. Reciba este diploma como agradecimiento y en reconocimiento a la labor que usted desempeñó. Bilbo, 23 de noviembre de 2007).

Omenduetatik hurrengo hauek etorri ziren: Inmaculada Boneta, Ramon Labayen, Jose Luis Lizundia eta Jose Antonio Maturana. Pedro Miguel Etxenikek, Alberto Ansolak eta Alfredo Marco Tabarrek ezin izan zuten ekitaldian egon. Azkenik, gogorapena egon zen hilda dauden Joaquin Maria Aginaga, Santiago Griñó y Rabert eta Jose Antonio Zalduarentzat.

10.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

Halakoak 2007an hurrengo hauek izan dira:

Orain dela urte batzuk hasita dagoeneko ohiko bihurtu delarik eta Euskadiko Galiziako Etxeen Elkartearekin elkarlanean, otsailaren 10ean gorazarrea egin zitzaion Castelaori Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioak ere, EAEko agintariekin, alemaniar udal zenbaiten ordezkariekin, beste erakunde batzuekin eta Gerra Zibileko biktimen senitartekoekin eta bizirik atera zirenekin batera, Gernikaren bonbardaketaren biktima guztien oroimenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintzan parte hartu zuen.

Matxixako Elkartearekin eta Bermeoko Udalarekin elkarlanean, omenaldia egin zitzaion Matxixakoko guduan hil ziren Euskadiko Itsas Armada Laguntzaileko gudari guztien senideei eta adiskideei.

Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, urtean zehar hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatu ziren, umeei eta gazteek hobeto ezagut ditzaten bizi diren ingurunea eta historia.

11.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA – ARCHIVO DEL NACIONALISMO

I.- AGIRI FUNTSAK. EGINDAKO LANAK.

A) ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA.

A.1. Aurten Artean deskribatutako eta antolatutako dokumentazioa
- Jesus Solaun Funtsaren dokumentazioarekin jarraitu.

A.2. Dokumentazioa berrinstalatu eta kokapen-kodeak aldatu, hala kutxetan eta barruko karpetatxoetan, nola informatizatutako datu-baseko fitxa bakoitzean.

- Euzkadiko Jaurlaritzaren dokumentazioa artxibo-kutxetan berrinstalatzeko zereginak hasi dira.

- Beste funts batzuk berrinstalatzea, horien dokumentazioa Euzkadiko Jaurlaritzaren karpetak zeuden kutxen artean banatuta baitzegoen: Fondo SERE, LIAV, Liga de Mutilados, etab.

A.3. Sabin Etxeako Idazkaritzan bildutako dokumentazio guztia identifikatu, birsaikatu eta berriro instalatzea. Urriaren azken aldera hasi zen Fundazioaren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen arteko lankidetzak Alderdi horren egoitzan gordetako dokumentazio guztia berrantolatzeko. Eginkizun horretan sartzen dira hala artxiboko dokumentazioa, liburuak, aldizkariak, egunkariak, argazkiak, nola soinudun dokumentazioa eta ikus-entzunezkoak, formatu informatikoan etab., gero berorien identifikazioa, balorazioa eta, behar izatera, garbitzea, hartarako ezarrita dauden gune berrietan (Artxibo Gordailua, Liburutegia, Hemeroteka, agiri berezietarako gordailua eta urruneko gordailua) berrinstalatzeko, deskribatzea eta antolatzea barne .

B) BIBLIOTEKA FUNTSAK

Abertzaletasunaren Agiritegiaren Liburutegian 2007/12/31 bitartean erregistraturiko monografiak **34.700** izan dira. Urtebete horretan, eta bekadun batek egindako lanari esker, beste 4.486 lan erregistratu dira, baina 338 aleri bakarrik ipini ahal izan zaie bizkar-oharra eta geure Liburutegiko apaletan instalatu. Gainerakoa, 4.148 liburu, erregistratuta baino ez dago (identifikatuta eta lokalizatuta), baina haien instalatzea oraingoz behin-behinekoa da eta ez zaio

jarraitzen Liburutegiaren oraingo zenbakiari. Dohaintza partikularretatik etorritako bibliografia-funtsak dira, adibidez, Ajuriagerra sendia, Joseba Rezola, Belaustegigoitia, Zubizarreta, Jesús Solaun edo Gainza, besteak beste.

C) "UZTURRE" HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako agerkarien aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. 2007an beste **345** izenburu berri gehitu zaizkio Hemerotekari. Une honetara arte "Uzturre" Hemerotekak **5.863** izenburu desberdin dauzka, eta 143.000 ale guztira.

II.- KONTSULTAK - AHOLKULARITZA HISTORIKO-DOKUMENTALA – LANKIDETZAK – JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA- EDITORIALA

Abertzaletasunaren Agiritegian **272** informazio-eskaera jaso dira 2007an, postaz, posta elektronikoz, faxez nahiz aurrez aurre. Nabarmendu behar da, berritasun gisa, urteon jasotako kontsulta guztietatik berrogeita hamarretik gora geure web orrian ipinita dugun formularioaren bitartez iritsi zaizkigula.

Zenbaketa orokorra eginez, esan behar da 1992ko urritik egindako kontsultak **2.616** izan direla.

Abertzaletasunaren Agiritegitik hurrengo ekitaldi hauetara joan eta parte hartu da:

Euskal literatur erbestaldiari buruzko biltzarra, Hamaika Bide Elkarteak antolatua: txostena "Agirre Columbiako Unibertsitatea"

Hitzaldia "50eko hamarkadako erbestaldiaz", HAEEK antolatutako Katalunia – Euskadi jardunaldien barruan.

Hilabete biko egonaldia Erroman Vatikanoko Artxiboetan ikerketak egiten (Alberto Onaindiarekin zerikusia duen dokumentazioa)

Astebeteko egonaldia AEBetako Artxibo Nazionalean (Agirrek New Yorken garatutako jarduerarekin zerikusia duen dokumentazioa)

Hurrengo monografia hauen kontrol editoriala ere egin da (kapituluak idatzi, inprimategiko probak zuzendu, diseinua, etab.):

- Labayru Ikastegiarekin elkarlana, Alberto Onaindiaren artxiboa, 1936-45, argitaratzeko. Posta-trukea bildu, agiriak ordenatu, kopiak....

- "Un nuevo 31: Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo" liburua. Iñaki Goiogana, Xabier Irujo eta Josu Legarretaren edizioa.

- Laster argitaratuko den liburua: "Diario de Agirre"

- Laster argitaratuko den liburua: "EAJk 1936 eta 1975 bitartean argitaratutako agerkari aldizkariak"

- IV.- MAILEGUAK / KOPIAK

Zenbait lankidetzaz egin dira elkarlanean 2007an; dokumentazioa edo material grafikoa laga da, hainbat lan, argitalpen, erakusketa edo erreportajetan sartzeko, batez ere; hurrengo hauekin:

- CONFEDERACIÓN INTERSINDICAL GALEGA (Xurzo Martínez): Agirre eta Galindezen argazki bi, Santo Domingon daudela, 2007ko otsailean editatutako lan baterako

- ELKAR ARGITALETXEA (Maidier Zapirain): Zenbait irudi "Espainiako gerra Euskal Herrian" argitalpenerako

- ZAZPIKA ALDIZKARIA - GARA (Fermín Munárriz): Durangoren bonbardaketaren argazkiak erreportaje baterako.

- BAIGORRI ARGITALETXEA – GARA (José Ramón Sola): 32ko Aberri Eguneako argazkia erreportaje batean sartzeko.

- BAIGURA COMMUNICATION – LE JOURNAL (Agus Hernan): Durangoren bonbardaketaren irudiak Le Journal-en erreportaje batean sartzeko

- DEIA (Amaia Artetxe): Aberri Eguneako irudiak, ospakizun horren 75. urteurrenari buruzko erreportajeari laguntzeko.

- DEIA (Amaia Artetxe): Telesforo Monzonen eta EAE/ANVren mitin bateko irudi bana, EAE/ANVren historiari buruzko erreportaje batean sartzeko.

- ALDAKETA HAMASEI (Jon Odriozola): Gernikaren bonbardaketaren irudiak

- BIZKAIA IRRATIA (Dorleta Alberdi): Jose Antonio Agirreren hitzaldia.

- NOTICIAS DE GIPUZKOA (Miguel Cifuentes): Carmonan preso zeuden apaizen argazkiak erreportaje baterako.

- TOTOAN, TXORIERRIKO EUSKAL ELKARTEEN FEDERAZIOA (Xabier Goienetxe): Amayur batailoiaaren argazkia Aikor aldizkariaren erreportaje batean sartzeko.

- DEIA (Humberto Unzueta): Burdinazko gerrikoaren eta Bilboren erori zeneko irudiak, kazetari-erreportaje baterako .

- CAMERON JAMES WATSON: euskal historiako argazkiak, laster aterako den "Basque Nationalism and Political Violence" izenburuko liburuan ateratzeko.

- DEIA (Humberto Unzueta): zenbait irudi: atzera egiten ari diren gudariak, Santoña, italiarrak, etab., kazetari-erreportaje batean sartzeko.

- SANTILLANA EDUCACIÓN (Mercedes Barcenilla): euskal egile zenbaiten argazkiak (Lizardi, Lauaxeta, Kirikiño, etab.), 2008ko maiatzean argitaratuko den EGIZU 2 lanean sartzeko.
- PERIÓDICO PÚBLICO (Miguel Angel Marfull): euskal apaizak espetxean
- BAIGORRI ARGITALETXEA - GARA (Maidier Iantzi): euskal apaizen argazkiak, espetxean zeudela.
- AULESTIKO UDALA (Jabi Aranguena): Sabino Aranaren argazkiak ehizan, “Aulesti, 130 urte kiñu baten”, liburuan ipintzeko; 2007ko abenduan argitaratu zen.
- ELIXIR FILMS (Nuria R. Cabestany): Euskal selekzioak 1937an Mexikon jokaturako futbol-partidaren irudiak, ETBren dokumental batean sartzeko.

V.- IKERTZAILEAK

Gure agiri-funtsak **46** ikertzailek kontsultatu dituzte. Haien izenak eta gaiak hurrengo hauek dira:

Deiturak	Izena	Ikerketa
ARRIETA ALBERDI	LEYRE	RADIO EUZKADI, EAJ-EUROPA
ARRIEN BERROJAECHVARRIA	GREGORIO	UMEEN ERBESTALDIA
CHUECA INTXUSTA	JOSU	GURSekO ESPARRUA
NIEBEL HOEVER	INGO	WAKONIGG KASUA
MÍNGUEZ ANAYA	ADRIÁN BLAS	MAUTHAUSENeko ESPARRU NAZIRA DEPORTATUTAKO VALENTZIARRAK
IRAZABAL	JON	OTXANDIOREN BONBARDAKETA
ROMERO PÉREZ	FERNANDO	PROPAGANDA KANPAINAK 1946, 1966, 1976 ETA 1978KO ERREFERENDUMETAN..
SAN MIGUEL	MARÍA LUISA	JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKADIREN HISTORIA
DÁVILA GARCÍA	CIRILO	ERTZAINZAREN HISTORIA
DÍAZ EGURBIDE	ION	JOKIN ZAITEGI ETA EUZKO GOGOIA
ARANGUENA	JABIER	AULESTIKO ANTZINAKO ARGAZKIAK.
ETXEBARRIA ZAMALLOA	IGONE	GORGONIO RENTERIA, LAUAXETA
IRUSTA	ALFREDO	KONTZENTRAZIO ESPARRUAK (2007an)

INGLES	AINSLIE BLAIR	ABERTZALETASUNA ETA EUSKAL ETA KATALUNIAR IDENTITATEAK
FARWELL CASTILLO	ARITZ	EUSKARA ETA EUSKAL HERRIKO PRENTSA
EGURROLA MADARIAGA	IÑAKI	ARANA GOIRI
EGUINOA ISASMENDI	AITOR	GERNIKAREN BONBARDAKETAREN 70. URTEURRENA
LEGARRETA MENTXAKA	AINTZANE	ENRIQUE AREILZA
ARDANAZ RUIZ	IGNACIO	BURDINAZKO GERRIKOA ETA BIZKAIKO FRONTEA
ROMEO	DARIO	EAJ DEMOKRAZIARANZKO TRANSIZIOAN (1975-1979)
BASTERRETXEA POLO	JOSE INAZIO	GALDAKAO BIZKAIKO FRONTEAN, 1936-1937
LÓPEZ DE MATURANA DIÉGUEZ	VIRGINIA	EUDKAL UMEEN EBAKUAZIOAK 70 URTE IGAROTA EUSKAL ABERTZALETASUNA (SANTIAGO DE PABLORENTZAT)
AURRECOECHEA URQUIJO	JOSÉ LUIS	PADURA BATAILOIA
IURRE ETXARRI	ARANTXA	EMAKUMEEN EGINKIZUNA ANTZEZLANETAN EUSKAL HERRIAN (XX. MENDEA)
MARCOS LECUONA // DE LA PUERTA HORMAECHEA	FERNANDO // JOSÉ M ^a	"HABANA" N EBAKUATUTAKO UMEAK
PÉREZ PÉREZ	TXEMA	1937AN EBAKUATUTAKO UMEAK
STEPHAN	TIM	EUSKAL NAZIO SENTIMENDUA
INDACOECHEA OYARZUN	IZASKUN	NEMESIO SOBREVILA
SERGEANT	VIRGINIE	KUBAKO IRAULTZA EUSKAL PRENTSAREN BITARTEZ
ARZALLUZ ANTIA	XABIER	AZKOITIKO BATZOKIAREN INAUGURAZIOA
EGURROLA ABAROA	IRATXE	GERNIKAKO "EUSKAL ESKOLA"
ODRIOZOLA (ezpala)	JON	JOSE MARIA DE AREILZA ETA BONBARDATUTAKO GERNIKA
GAMBOA LANDA	MARÍA ICIAR	ERBESTALDIA
ANSEL	DARIO	EUSKAL ABERTZALETASUNA LANGILE KLASEAK II. ERREPUBLIKAN.

RECEVEUR - CADIÑANOS	GERARD	GURSekoa ESPARRUA
GARMENDIA LASA	ELIXABETE	XABIER PEÑA
MUÑOZ FERNÁNDEZ	FRANCISCO JAVIER	BILBOKO ARKITEKTURA, 1928-1950
URRUTIKOETXEA BILBAO	MARIÑE	GÜEÑESeko BATZOKIAREN HISTORIA
SUÁREZ BARRUTIA	JON	FULGENCIO BARRUTIA ARISTONDO (1936-1940. GERRA ZIBILA)
ELORZA OIARZABAL	JOSÉ IGNACIO	
RUBIRALTA	FERMÍ	PAULINO GÓMEZ DE HEREDIA
SÁEZ GARCÍA	JUAN ANTONIO	EUSKAL HERRIKO ZIGILUAK
GRACIA CÁRCAMO	JUAN	BILBOKO ALKATETZAK, 1939-1975
MARTÍNEZ MARTÍNEZ	JOSU	SATURRARANGO ESPETXEA
OTAMENDI ETXABE	JOSÉ LUIS	"ESPETXEAN" ALDIZKARIA
ARANBARRI ALBERDI	IÑIGO	SEGUNDO CAZALIS

12.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

12.1.- URTEKO BALANTZEA

Oroitzen ari garen 2007ko ekitaldian Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak ahalegin berezia egin du bere funtsak Manu Egileor eraikinen berrinstalatzeko, han bildu baitugu museo-material guztia. Ildo horretan, gure funtsen zati handi bat, eta dohaintzen ondorioz erantsi zaizkien berriak, antolatzen dihardugu, geure Museoaren heinerako egindako informatika-programa baten laguntzarekin.

Hurrengo hauen inbentario exhaustiboa egin dugu:

- Armamendu-bilduma: armak deuseztatu dira eta berriro instalatu erregistro-zenbaki berri banarekin, legeari jarraiki. Haietako bakoitzaren deskripzio zehatz bat, historia txiki bat eta argazki zehatz bana egin ditugu-. Hori guztia Ertzaintzarekin kontrastatuta eta erregulatuta.
- Argazki-artxiboa: deskripzio berri batean behar egin dugu, erregistro berriekin, eta 1.640tik gora irudi digitalizatu ditugu,

gehienak gerra zibilaren sasoikoak. Irudi horiek guztiak argazki-
albumetan instalatu dira, ph neutrodun azaletan gordeta, tamaina
desberdinetakoak beroriek, irudi bakoitzari egokituak, alegia. Aldi
berean inbentario paralelo bat sortu da bertan irudiak errepikaturik
deskribatuta emateko, bakoitzaren hiru ale erregistratutakoan.

- Eranskailu-bilduma: 4.500etik gora idazpen desberdin erregistratu
dira, material errepikatuarekin erregistro paralelo bat gertatu izanaz
batera, eta, halaber, haietako bakoitza bereizmen handiko sistemaz
digitalizatu da.
- Horma-irudien bilduma: 1.300 idazpen desberdin baino gehiago;
gainera, haien irudiak argazkigintza digitalez atzeman dira.
- Sakelako egutegien bilduma: dagoeneko 300etik gora idazpen
dauzkagu erregistraturik, eta material errepikatuarekin erregistro
paralelo bat ere gertatu da, bai halaber, haietako bakoitza
bereizmen handiko sistemaz digitalizatu.
- Txartel-bilduma: egina dugu bilduma berri honen deskripzioa egin
dugu; hogeita hamar idazpen baino gehiago eta haiek digitalizatu
ere bai.
- Batailoietakoz zerrenden hustuketa: 31.000 idazpen desberdin
erregistratu dira; datuak gudarien zerrendetatik eta batailoietakoz
nominetatik atereak dira.

Informazio horrekin batera gudarien batailoien historialak egin dira;
orain arte 100 bat idazpen daude gertatuta.

Lan horiek egin ahal izateko, 180 kontsulta baino gehiago eskatu dira goian
deskribatutako inbentarioei buruz.

Museoak 2007an dohaintza-kopuru handia jaso du; dagoeneko inbentarioa egiten
eta dagozkien euskarrietan instalatzen ari gara gordailuen barruan. Material asko
eta garrantzitsuak berreskuratu ditugu, gure pinakoteka nahiz funts higigarriak eta
beste ere handitzea lortuz. Zumaiako Jon Gutierrez Irigoyenen bildumaren
dohaintza jaso dugu; dohaintzan jantzi eta gauzaki asko daude aldi desberdinekin
zerikusia dutenak, hots: gerra karlistak, Kubako gerra eta Filipinetako gerra, euskal
abertzaletasunaren hasiera, II. Errepublikak, 1936ko gerra, edo II. Mundu Gerra.
Edo Begoña Angladak, Jose Antonio Esnaolak eta Miren Petralandak gure altzari-
funtserako egindako ekarpen ederrak; edo Ballesteros sendiarena, gerra zibileko
hainbat argazki ezezagunek osatua. Haiek guztiek egoki uste izan dute euren
senideen legatua artatu, antolatu eta ezagutarazteko lekurik egokiena Sabino
Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoa dela.

Atal honetan gure eranskailu, egutegi, txartel eta horma-irudi bildumak handitzen ere ikusi ditugu, hainbat bildumazalek egindako dohaintzengatik; hartara, haiek gure dohaintza-egileen zerrenda ugaritu eta handitu dute.

Beste alde batetik, erakusketa ibiltariei dagokienez, nabarmendu behar da ezen, 2007an hara eta hona ibili direla eta udalerrri askotan ikusi ahal izan direla. Ibiltaritza handi horren oinarri, arloko aditu zenbaitek emandako hitzaldiak eta tailer didaktikoak izan dira, bisitaria, behatzera zihoan une historikoa testuinguruan ipintzeko balio izan baitute..

Manu Egileor Aretoan egiten diren aldi baterako erakusketei dagokienez, 2007an Museoak iaz hasi genuen politikari jarraitzen zaio, alegia: urte osoan erakusketa bat edukitzea aukeratu genuen, ikastetxeetako curriculum-egitasmoen estaldura hobea eman ahal izateko, erakusketa-eremuaren barruan ematen diren tailer didaktikoen laguntzarekin.

Gaur egun areto horretan “10 talaia 1936ko gerrarako” izenburudun erakusketa ipini dugu, Bilboko Euskal Museoarekin elkarlanean, erakunde horrek materiala utzi digularik erakusgai ipintzeko.

Ikastetxeek harrera ona egin diote gure proposamen berriari, ingurune horren barruan egindako ahozko tailer didaktikoen hizlariak kontaktatzen dituzten gertaeren garaitik hurbilago sentiarazten baitituzte gazteak.

Erakusketa horrek jakin-min handia sortu du gure bisitari askorengan eta, ukitzen duen gaiagatik, beste erakusketa batzuek iritsi ez garen ikastetxe zenbait interesa daitezten lortu dugu.

Museoak jasotako bisitak asko gehitu dira 2007an. Horrenbestez, adibidez, eskola-garaiko hileetan bisitarik gehienak ikastetxeetako ikasleak izan dira batez ere, askotan ahoz ematen ari garen historia-tailerrek eta, Museoak berak “Bizkaitik Bizkaira” irratia-saioan duen parte-hartzeak animatuta.

Udako hileetan kanpoko talde eta pertsona asko etorri zaizkigu bisitatzen, leku hauetatik etorritakoak: Katalunia, Mallorca, Galizia, Madril, Asturias, Valentzia, Suedia, Irlanda, Amerika, Argentina, Belgika, Ingalaterra, Alemania, Frantzia, etab.

Azaro-abenduetan bisitari asko jaso ditugu, horiek ere eskaintza didaktiko berri batek erakarrita: bisita-tailerrak, Lehen Hezkuntzari (7-12 urte) zuzenduak, maila bitan banatuta: lehenengoa, “Sortu zeure bandera” izenburukoa, 7-9 urteko ikasleentzat, eta bigarrena “historia osatzen” izenburukoa 10-12 urteko ikasleentzat.

Lehenengoan informazio-karpetak banatzen dira, eta haietan, zenbait banderari buruzko informazioa eta ikasleek bakoitzak bere bandera egin ahal izateko materiala..

Bigarrenean, behin erakusketa iraunkorraren bisita amaitutakoan eta bertan erakusgai dauden eta gure historiaren zenbait gertaera azaltzen duten objektu batzuen gaineko informazioa jaso ondoren, eskola-umeek objektu horiek osatu beharko dituzte bertan emango zaizkien puzzleetan.

Bisita-tailerra Museoak daukan erakusketa iraunkorraren barruan kokatzen da.

Urte osoan 5.700 pertsonaren bisita jaso dugu guztira.

Otsaila, azaroa eta abendua izan dira talderik gehien etorri zaizkigun hileak. Gainera, baita kontuan izan behar ditugu ere, Euskadi osoan egin ditugunaldi baterako erakusketak bisitatu dituzten pertsona horiek guztiak, zeintzuk ez baitira zenbatzen Museoak guztira izandako bisitariaren artean.

Zaharberritzeen atalean, aurten Sabino Aranaren langela zaharberritu dugu, baita haren idazmahaia ere, estilo neoklasikokoa, XVIII. mendearen azken aldekoa.

Zaharberritzeetan, dagoeneko bukatu da, zuhaitz baten gainean Euskadiren armarrria eta horren inguruan herri-irudiak ikusten diren luze-zabalera handiko mihisearena.

Bukatu den beste zaharberritze bat da, Antzuolako Batzokiko ekitaldi-aretoiko oihalarena; Simon Arrieta bergarar artistak egin zuen eta gerra aurretik jeltxideen egoitzan egiten ziren antzezlanak irekitzeko eta ixteko erabiltzen zen. Oihal horren berezitasuna da, jatorrizko irudian ikurrina zeraman dantzari-bikote bat zuelarik, gero, Antzuolako karlistek berrukitu egin zutelako: bateko, ikurrinaren gainean bandera espainola irarri zuten eta, besteko, dantzariaren txapelari kolore beltza aldatu eta gorria ipini zioten.

Bestalde, geure web orrian lan egiten segitzen dugu. Gure jarduera eta zerbitzu guztien gaineko informazio zehatza ematen dugu eta dendaren aurkezpena eta edukia modernizatzen ari gara, gure bisitariei produktu mota gehiago eskaintzen ari baikara.

12.2.- LANKIDETZAK

- **“Digital Audiovisuales”**

Durangoko bonbardaketaren argazkiak laga zitzaizkien

- **“DEIA”**

Galindezen erakusketako irudiak, haren gaineko erreportaje bat egiteko.

- **“Durangoko Udala”**

Otxandiano eta Kirikiño batailoiei buruzko informazioa Udalak bere kultur agendan sartzeko

- **“BBK Fundazioa”**

Jose Antonio Agirreren irudiak, Martina Zurikaldyri buruz prestatzen ari zen liburua egiteko.

- **“Revista Frida”**

Gerra zibilean errepresioa jasan zuten emakumeekin kontaktuak, gai horri buruzko artikulua bat egiteko.

- **“Baleuko”**

Emakumeek egindako gauzakien kartelak, argazkiak eta irudiak, emakumeak eta erbestaldiari buruzko erreportaje baterako.

- **“Azpeitiko eta Azkoitiko udalak”**

Inguru horretako euskal abertzaletasunari buruzko liburu bat egiteko gauzakiak eta argazkiak.

- **“Musée Basque et de l’Histoire de Bayonne”**

“Gernika, hazia mundu osorako argia. Gernika, de l’histoire basque au symbole universel” erakusketa egiteko, 2007ko apirilaren 17tik uztailaren 1era. Honako hauek laga zitzaizkien: lehenengo Euzkadiko Jaurlaritzaren argazkia, 1936ko urria; Agirre lehendakariak Gernikan emandako zin egitearen argazkia; kautxuzko zigiluak eta lehenengo euskal gobernuaren idazpurudun orriak; ikurrinaren marrazkia, eta 1936ko urriaren 8ko “Euzkadi” egunkaria.

- **“Bilboko Euskal Museoa”**

“Gernika, hazia mundu osorako argia. Gernika, de l’histoire basque au symbole universel” erakusketa egiteko uztailetik irailera. Honako hauek laga zitzaizkien: lehenengo Euzkadiko Jaurlaritzaren argazkia, 1936ko urria; Agirre lehendakariak Gernikan emandako zin egitearen argazkia; kautxuzko

zigiluak eta lehenengo euskal gobernuaren idazpurudun orriak; ikurrinaren marrazkia, eta 1936ko urriaren 8ko “Euzkadi” egunkaria.

- **“Lezamako Uri Buru Batzarra”**

“Lezama, un siglo después” liburua egiteko argazkiak.

- **“Galdakaoko Udala”**

Ume erbesteratuen argazkia.

- **“Gerediaga Elkarte”**

“Azken Guda Zibilaren 70.urteurrena” izenburuko erakusketa egiteko, Durangoko bonbardaketaren argazkiak eta agiriak eta “Spain Durango a martyred city” izenburuko liburua utzi zitzaizkien.

- **“Amorebieta-Etxanoko Udala”**

Udalerri horretan erbestaldiari buruzko erakusketa bat egiteko, zenbait dokumentu digitalizatu ziren erakusketaren osagai izateko.

- **“Represaliatuak” elkarte**

Sestaori buruzko materiala, Udalerriari buruzko erreportaje bat egiteko bertako aldizkarian.

- **“Areatzako Udala”**

Areatzako gudariei dagozkien gauzakiak, agiriak, argazkiak etab., udalerri horretan haien omenezko gorazarre-ekitaldi baterako.

- **“Bermeoko Liburutegia”**

Bermeoren gerra zibileko argazkiak, “La guerra civil en Bermeo y la Batalla de Sollube” izenburudun liburu baterako.

- **“DEIA”**

Izan diren Aberri Egunetako kartelak, eranskailuak...

- **“Aixeder Servicios Culturales”**

Erakusketa bat egiteko, 40 eta 50eko urteetako aisialdi-kontuetako gauzakiak, kartelak, argazkiak.

- **“Araba euskaraz 2007”**

Gure museoak euskaraz egindako erakusketen katalogoa.

- **“Diputatuen Kongresuko Artxiboa“**

EAJren 1977ko kartela Kongresuan bertan egin zen erakusketa baterako.

- **“Emakunde”**

lhesi doazen emakumeen argazkiak, bere aldizkarian emakumeak eta gerrari buruzko artikulu baterako.

- **“Lur aldizkaria”**

Museoak egin zuen “10 talaia 1936ko gerrarako” erakusketaren irudi batzuk, gerra zibilari buruzko artikulu baterako.

- **“Radio Euskadi”**

Gerra Zibilean emakumeei egindako argazkiak eta kontaktuak, gai horri buruzko liburu bat egiteko.

- **“Fundación Pablo Iglesias”**

1977ko hauteskundeetako kartela, Trantsizioari buruzko erakusketa bat egiteko.

- **“Eusko Jaurlaritza eta Osoxile”**

Euzkadiko Jaurlaritzak jaulkitako txanponak, Eusko Jaurlaritzarentzat opari instituzional bat egiteko

- **“DEIA”**

Apaizak erbestaldian ikusten diren argazkiak eta eta gerra-kapilauek erabilitako gauzen irudiak, apaizei buruzko erreportaje baterako.

- **“Radio Euskadi”**

Gerra Zibilean Santoñan fusilatutakoen senideen datuak Grafitti irrati-saiorako

- **“Erakusketen saila. Bartzelonako kultura garaikidearen zentroa”**

Jesús de Galíndezen irudi batzuk eta Museoan hari buruz egin genuen erakusketakoren bat, “Idazle errepresaliatuak” gai hartuta egindako erakusketa baterako”

- **“Euskal Telebista”**

Euskara erabiltzeagatik errepresaliatutako pertsonen datuak eta Museoan “Habla en cristiano” erakusketan erabili genituen agiri batzuk, “Vuelta de tuerca” saiorako.

- **“Museu de l’Exili”**

Hark duen erakusketa iraunkorrerako, eta urte bian, hurrengo dokumentu hauek laga zaizkio: Winnipeg baporearen planoak; itsasontziak kontratatzeko espedienteak; Winnipeg-en ontziratutakoen zerrenda; SEREren inprimakia bidaiarientzako diru-laguntzaz; SEREren jakinarazpena ebakuazioaren abisua emateko; “Emigración” espedienteak; Consell Nacional de Catalunyaaren adierazpena, etab.

- **“Editorial Santillana”**

1937ko zigiluen irudiak liburu baten zati batean erabiltzeko.

- **“Ikeder”**

Jesús de Galíndezen irudi batzuk, haren gaineko marrazki bat egiteko, zuzenbideko testu batzuei laguntzeko.

12.3.- TAILER DIDADKTIKOAK ETA JARDUERAK

- **Otsaila**

Otsailaren 22a

Historiako tailerrak, Euskadiren historiako zenbait aldiren gaineko lekukotasunekin. Horretan lagundu dute, Jose María Otxoa de Txintxetru “Kirikiño” batailoiko gudariak eta Aranzadi Zientzia Elkartekoa den Mikel Errazkinek. Gaia: memoria historikoa berreskuratzea

Partehartzailea, Durangoko “Fray Juan de Zumarraga” Bigarren Hezkuntzako Institutua.

13:00etatik 14:00etara

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko “Manu Egileor Aretoa” aldi baterako erakustaretoa.

Otsailaren 23a

Historiako tailerrak, Euskadiren historiako zenbait aldiren gaineko lekukotasunekin. Horretan lagundu dute, Jose María Otxoa de Txintxetru “Kirikiño”

batailoiko gudariak eta Aranzadi Zientzia Elkartekoa den Mikel Errazkinek. Gaia: memoria historikoa berreskuratzea.

Partehartzailea, Durangoko "Fray Juan de Zumarraga" Bigarren Hezkuntzako Institutua.

13:00etatik 14:00etara

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko "Manu Egileor Aretoa" aldi baterako erakustaretoa

- **MARTXOA**

Martxoaren 1a

"¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939".
Hitzaldia: 19:30etan, izenburua: "Gerra Zibila eta frankismoa; bizipenak eta memoria historikoa, Aranzadi Zientzia Elkarteko Paco Etxebarriak emanda, Galdakaon

- **APIRILA**

Apirilaren 13a

"¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939".
Aurkezpena: Román Berriozabal Azpitartek egindako "Nacionalismo Vasco en Elorrio 1894-1937" liburua.

Lekua: Elorrioko Euskadiko Kutxaren erakusketa-aretoa.

Apirilaren 20a

Historia-tailerrak, Euskadiren historiako zenbait gertakariri buruzko zuzeneko lekukotasunekin. Lankide izan direnak: Esteban Urien, Belgikara erbesteratutako gerrako umea, eta Mikel Errazkin, Aranzadi Zientzia Elkartekoa. Gaia: memoria historikoa berreskuratzea.

Partehartzailea, Azpeitiko Urola ikastola

13:00etatik 14:00etara

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko "Manu Egileor Aretoa" aldi baterako erakustaretoa

¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939"

Hitzaldia: Aranzadi Zientzia Elkarteko Iñaki Egañak emanda; izenburua: “Gerra Zibila Euskal Herria. Memoria Historikoaren Berreskurapena”.

Lekua: Elorrioko Euskadiko Kutxaren erakusketa-aretoa.

- **EKAINA**

Ekainaren 15a

¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939”

Hitzaldia: Aranzadi Zientzia Elkarteko Iñaki Egañak emanda; izenburua: “Gerra Zibila Euskal Herria. Memoria Historikoaren Berreskurapena

Lekua: Alonsotegiko Udaletxeko aretoa

- **ABENDUA**

Abenduak 3 - 9

Liburu Azoka: geure argitalpenen aurkezpena Durangoko azokako standean.

Abenduaren 5a

Bisita-tailerrak Lehen Hezkuntzako eskola-umeei zuzenduak, sormen artistikoa garatzeko.

11:00etatik 13:00etara

Lekua: Euskal Abertzaletasunaren Museoko “Manu Egileor Aretoa” aldi baterako erakustaretoa.

12.4.- EGINDAKO ERAKUSKETAK

1.4.1 “10 TALAIA 1936ko GERRARAKO”

Erakusketaren ardatz-haria, 1936an irekitako abagune tragikoan isilik eta arriskuan jarrita Euskadin eta Estatuan bizi, borrokatu eta pairatu zenaz idatzi, argazkiak egin eta informatu zutenen lana da. Harako Jose Lekaroz, Jesus Garritz, Cruz Salido, Francisco Turrillas, Jose Olivares, Jesus Insausti, Agustin Zubikarai, George L. Steer, Noel Monks, Mathieu Corman, David Seymour, Indalecio Ojanguren, Valentín Beradre, Vicente Garay... haiek eta beste kazetari eta

argazkilari ezezagun askok lekukotasun bat utzi zuten, gaur egun berreskuratzea merezi duena, oroipenak eta gomutak haiei guztiei zor zaien duintasuna eta esker ona nabarmendu ditzaten.

“10 talaia 1936ko gerrarako” erakusketak, hain zuzen ere 10 talaiaren —handik goitik aurkitzen eta begiztatzen laguntzen duten lekuak— bitartez, gatazka hark euskal lurrian izandako gauzapeñetara hurbiltzen lagundu nahi du. Talaia horiek oraingoan argazki ugariz, sasoi hartako egunkarien azalez eta beste lekukotza grafikoak, prentsakoz eta bibliografikoak daude eraikita.

Gatazkari buruzko material grafikoak, hemerografikoak eta beraren garaikideak direla bitarte, horri guztiari esker, zenbait alderdi gogoratu ahal dira, besteak beste: 1936ko uztaileko militarren altxamendua eta horri egindako jarkiera; euskal autonomiaren eta autogobernuaren gauzapeña; gerrako gertaerarik garrantzitsuenak eta berorien ondorioak gizarte-sektore zenbaitetan; umeen erbestaldia; atzeguardiako bizitza; gatazkaren ondorioak, etab.

Horretara guztira hurbiltzen gaituzte 10 talaiek, orain dela 70 urteko gatazka hark oroipenerako eta historiarako iradokitzen dituen eremu zabalak aurkitu ditzagun.

Erakusketa hau ikusi ahal izan zen, bai Bizkaiko Foru Artxiboan (Maria Diaz de Haro, 11. Bilbo) 2007ko otsailaren 28tik martxoaren 31ra, eta bai Euskal Abertzaletasunaren Museoko Manu Egileor erakustaretoan, 2007ko maiatzetik abendura.

1.4.2.- ERAKUSKETA: "AZKOITIA AZPEITIA. ABERTZALETASUNAREN 100 URTE"

Azkoitiko eta Azpeitiko batzokien mendeurrena zela-eta, herriotako Uri Buru Batzarrek, halako gertakari handia ospatu nahi izan zutelarik, bi udalerrri horietako abertzaletasunaren azken ehun urteotako historia jasoko zuen erakusketa bat antolatu zuten. Ahalegin haren emaitza izan zen, “Azkoitia Azpeitia. Abertzaletasunaren 100 urte”, zeinen arduraduna Eneko Sanz izan baitzen. Inaugurazioa joan den martxoaren 30ean izan zen Azkoitiko Torre Zuri erakustaretoan, apirilaren 15a arte ikus zedin. Ondoren, Azpeitiko Betherram aretoan ikusi ahal izan zen apirilaren 20tik maiatzaren 6ra.

1.4.3. ERAKUSKETA: "ELGETA. GERRA ZIBILEAN"

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Elgetako Udalak Gerra Zibilean Intxortako frontean borrokatu ziren milizianoei eta gudariei gorazarre egiteko antolatutako ekitaldien barruan paratutakoa. Erakusketak leku hartan izandako gertaerak erakutsi eta gogoratzen ditu,

Erakusketa 2007ko apirilaren 19tik maiatzaren 3ra egon zen ikusgai Elgetako Espaloioa Antzokian.

1.4.4. ERAKUSKETA “SABINO ARANAREN BULEGOA”

Erakusketan Sabino Arana Gorirena izandako langela ikusi ahal da, eta osatuago egoteko: ezkontza zela-eta Abiñako Andoni deunaren baselizari (Sukarrieta) oparitu zion idazmahaia, han ezkondu baitzen, zenbait gauzaki pertsonal, hala nola, haren arreoko ontziteria, eskuz margotua berori, eskularruak, kapela luzea, etab.

Gainera hainbat argazki eta agiri ere badaude: ikurrinaren eta euskal xakearen diseinuak; Euskeldun Batzokijaren Zuzendaritza Batzaren erabakia “Vizcay’tik Bizkaï’ra”ren antzezpen bi (1895/06/17) ordaintzeko eta Sabino de Aranak Roosevelt-i (1902-05-26-30) bidalitako telegrama, besteak beste.

Erakusketa hau Sabin Etxean ikusi ahalko da 2009ko abenduaren 29ra arte.

1.4.4.- ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

- Urtarrila

“Missing Galíndez. Askatasunen aldeko borrokalaria. New York 1956”

2006ko abenduaren 23tik 2007ko apirilaren 15era.
Bilboko Euskal Museoa

“Habla en cristiano”

2007ko urtarrilaren 1etik apirilaren 8ra.
Manu Egileor erakustaretoa. Euskal Abertzaletasunaren Museoa. Artea Arratia

- Otsaila

“¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939”

2007ko otsailaren 20tik martxoaren 8ra
Torrezabal Kultur Etxea. Galdakao

- Apirila

“¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939”

2007ko apirilaren 14tik 27ra
Elorrioko Euskadiko Kutxaren erakusketa-aretoan

“Azkoitia Azpeitia. Abertzaletasunaren 100 urte”

2007ko apirilaren 20tik maiatzaren 6ra.
Betherram Aretoan. Azpeitia.

- Ekaina

"Nunca más. Imágenes de guerra 1936-1939"

2007ko ekainak 10 - 17.
Alonsotegiko Udaletxea

- Iraila

" Busturiako Batzokiaren inaugurazioaren XXV. urteurrena"

2007ko irailak 7 - 9
Axpe Busturiako Batzokia

"Gerra Zibila. Arrigorriaga. 1937"

2007ko irailak 25 - 29.
Kultur Etxeko erakustaretoa. Arrigorriaga

- Azaroa

"Nabarra boua eta Matxitxakoko guda"

Azaroaren 15etik abenduaren 2ra.
Udal Aretoa Pasaia San Pedro

- Abendua

"LAUAXETA. LAU HAIZE HAMAIIKA BEGIRADA"

2007ko abenduaren 3tik, iraunkorki.
Torrebillela Kultur Etxea. Mungia

13.- AGIRITEGIAK ETA MUSEOAK IZANDAKO DOHAINTZA-EGILEEN ZERRENDA

Dohaintza-egileak guztira eta 2006/12/31ra arte 1.305 izan dira. Aurten **66** pertsonak lagundu diote Euskal Abertzaletasunaren Museoari. Kopuru horretatik **34** dohaintza-egile berriak izan ziren. Dohaintzen artean, euren tamainagatik, Jon Gutierrez Irigoienek, Miren Petralandaren eta Miren Sorkunde Urkiagaren bildumak, besteak beste, nabarmendu behar dira.

2007an dohaintzak egin dituztenak dira:

Dohaintza-egilea	Hasiera-eguna	Azken eguna
-------------------------	----------------------	--------------------

AGIRRE ZABALA, JOSEBA	2004/07/30	/2007/12/13
AGIRRE, GORKA	1988/4/28	/2007/11/13
AGIRRE, JUAN JOSÉ	2004/01/27	2007/01/09
AJURIA, PERU	1992/11/11/1	2007/11/28
ALEJANDRE, ANGEL	1994/12/13	2007/02/06
ALVAREZ ARANBURU, GORKA	2006/11/10	2007/06/21
ANASAGASTI, IÑAKI	1992/11/1	2007/10/10
ANGLADE BEASKOETXEA, BEGOÑA	2006/01/02	2007/02/08
ARENAZA ARRIBALZAGA, MARTIÑE	2003/02/03	2007/06/07
ARRIEN BERROJAECHAVARRIA, GREGORIO	1997/03/24	2007/03/23
ASTORKIZA, FAMILIA	2007/06/18	2007/06/18
AXPE, MARTIN	2007/03/07	2007/03/07
OIARTZUNGO UDALA	2007/05/03	2007/05/03
AZKORTAPE KULTUR TALDEA	2000/10/25	2007/04/16
AZKUE ANTZIA, KOLDO	2002/06/27	2007/12/19
AZPEITIKO URI BURU BATZARRA	2007/05/08	2007/05/08
AZUA VIVES, REGINA	2007/05/18	2007/05/08
BABIO ARRIZABALAGA, MIREN	2007/01/31	2007/01/31
BALLESTEROS, FAMILIA	2007/06/05	2007/06/05
BALLESTEROS, M ^a CARMEN	2007/05/15	2007/05/15
BARRUTIA, WENCESLAO	2001/05/07	2007/06/21
BAYO SARALEGUI, M ^a JOSÉ	2007/01/17	2007/01/17
BEITIA, KONTXITA	2007/06/06	2007/06/06
BENITO CASSINELLI	2006/10/23	2007/04/23
BILBAO, MARIAN	2007/06/18	2007/06/18
DELGADO CENTAGORTAGALARZA, ANDER	2007/12/13	2007/12/13
DIEZ UNZUETA, J. RAMÓN	2007/01/17	2007/01/17
ECHEBARRIA, JOSEBA AITOR	2007/06/018	2007/06/018
EGIGUREN, JOSE AGUSTIN	2007/05/23	2007/05/23
EGURROLA, IÑAKI	2006/06/07	2007/06/20
EPALZA SOLANO, TXOMIN	2007/11/28	2007/11/28
EREÑO ZORROZUA, ALIZIA	2006/09/26	2007/01/09
ESNAOLA, JOSE ANTONIO	2007/05/09	2007/05/09
GOIOGANA, IÑAKI	1996/08/19	2007/12/27
GOTI, GUILLERMO	2006/11/06	2007/06/21
GRASS, DORA	2007/06/07	2007/06/07

GUTIERREZ IRIGOIEN, JON	2007/09/013	2007/12/01
IRAZABAL PEREZ, LUIS	1995/02/06	2007/01/15
LARRAÑAGA, JOSE MIGUEL	2007/01/17	2007/01/28
LARRAÑAGA, TOMÁS	2007/01/17	2007/01/17
LEGARRETA, JOSU	1992/11/01	2007/06/25
LEKUONA, ANDONI	2007/02/05	2007/02/05
MARTINEZ CRESPO, XURXO	2004/02/16	2007/12/07
MENDIZABAL, JOXEMARI	2007/01/16	2007/01/16
MENTXAKA, JESUS	2004/04/15	2007/10/31
MORENO TORRES, JOSE	1998/01/09	2007/10/31
MUÑOIA, JOSE MARIA	1997/12/30	2007/02/07
OLHAGARAY, DENISE	2007/03/05	2007/03/05
PEREZ BAROJA, ROSA M ^a	2007/09/17	2007/09/17
PEREZ DE ARRIAGA, JOAQUIN	2007/11/06	2007/11/26
PETRALANDA, MIREN	1998/02/09	2007/05/07
PIEDRA, GABRIEL	2002/09/09	2007/06/11
RECEVEUR CADIÑANOS, GERARD	2007/11/05	2007/11/05
REGIL RUIZ, JOSE MARIA	1998/05/21	2007/05/17
REY, PEDRO	2007/05/08	2007/05/08
ROTAECHE AMADE, IMANOL	2007/05/21	2007/05/21
ROTAETXE AMUSATEGI, KARMELE	2007/06/11	2007/06/11
RUIZ LAKA, IÑAKI	1993/03/23	2007/07/27
SAN MIGUEL, KARMELE	2007/05/06	2007/05/06
SAN SEBASTIAN, KOLDO	1995/06/16	2007/02/05
SARBAUGH, THOMAS	2007/01/11	2007/03/08
SARRIA, RAFAEL	2007/05/18	2007/05/18
TORRE ITURBE, KOLDO	2001/06/20	2007/06/18
URKIAGA BILBAO, MIREN SORKUNDE	2005/09/20	2007/10/30
URKIJO BIZCARGÜENAGA, JUSTO	2007/06/21	2007/06/21
URKULLU RENTERIA, IÑIGO	1999/02/05	2007/05/09

14.- 2007an EGINDAKO JARDUEREN EGUTEGIA

Urtarrilak 2:

- “Habla en cristiano” erakusketa Artean, apirilaren 18ra arte luzatu.

Urtarrilak 6:

- Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen Hermes aldizkariaren zenbaki berezi bat atera da gai nagusi honekin: “Bake-prozesua gaur. Atzeraezinezko bihur dadin baldintzak”.

Urtarrilak 18:

- Mahaingurua: “Gizarte solidario batean lankidetzak dituen erronkak”, Aldabe Auzo Etxean (Eulogio Serdan, 2 Vitoria-Gasteiz) honako hauek parte hartuta: Jose Angel Cuerda, Gasteizko alkate ohia eta Intermoneko kontseilukidea; Aitor Gabilondo, Gasteizko Udalaren Garapenari Laguntzeko Lantaldeko arduraduna, eta Natalia Rodriguez, Euskadiko GGKEen Koordinakundekoa eta Jendaurreko Eraginerako arduraduna.

Urtarrilak 28:

- 2006ko Sabino Arana Sariak, Bilboko Arriaga antzokian.

Otsailak 10:

- Castelaori omenaldia, Txurdinagako Europa parkean.

Otsailak 19:

- “¡Nunca Más! Imágenes de guerra (1936-1939)” erakusketaren inaugurazioa Galdakaon.

Otsailak 21:

- Artur Mas Convergència Democràtica de Catalunya (CDC) idazkari nagusiaren hitzaldia “Galiza, Euskadi, Catalunya: Estatu nazioanitzaren erroka” hitzaldi-sortaren barruan. Bilboko Sheraton hotelean.

Otsailak 22:

- Historiari buruzko ahozko tailerra Artean.

Otsailak 23:

- Historiari buruzko ahozko tailerra Artean.

Otsailak 27:

- “10 talaia 1936ko gerrarako” erakusketa Bizkaiko Foru Artxiboaren erakustaretoan.

Martxoak 1:

- Mintegia: “Prostituzioa: erregulatu gabeko negozioa”, Bilboko Sheraton hotelean egin zen honako hauek parte hartuta: Eva Engman, emakume-trafikoaren kontrako Baltikoko Lankidetzarako Erakundeko kidea; Josep M^a Tamarit, Lleidako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna, eta Nora Levinton, Psikoanalisian doktorea Madrileko Unibertsitate Autonomoan.
- Memoria historikoaren berreskurapenari buruzko hitzaldia Galdakaon.

Martxoak 5:

- Matxitxakoko guduaren 70. urteurreneko ekitaldietan parte hartu

Martxoak 7:

- Anxo Quintana Galiziako Xuntako presidenteorde eta BNGko eledun nazionalaren hitzaldia 'Galiza, Euskadi, Catalunya: Estatu nazionitza erronka' hitzaldi-zikloaren barruan, Bilboko Sheraton hotelean.

Martxoak 8:

- “Galíndez Missing” erakusketa, apirilaren 15era arte luzatu da.

Martxoak 10:

- Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen Hermes aldizkariaren 22. zenbakia argitaratu; gai nagusia: Lurzorua eta hirigintza”.

Martxoak 14:

- Liburu-aurkezpena: “Las voces del diálogo. Poesía y política en el medio siglo” Madrileko Espai Cultural Blanquernan, Jordi Amat, egileak, Valentí Puig-ek eta eta Juan M^a Atutxak parte hartuta; antolatzailea Tribuna Galeuscat izan zen.

Martxoak 20:

- Memoria historikoaren berreskurapenari buruzko hitzaldia Artean.

Martxoak 21:

- EAJren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakari Josu Jon Imazen hitzaldia 'Galiza, Euskadi, Catalunya: Estatu nazionitza erronka' hitzaldi-zikloaren barruan, Bilboko Sheraton hotelean

Martxoak 29:

- Mintegia: “Euskal trenbide-sare berria: etorkizun-apustua Euskadirentzat” izenburuarekin Bilboko Sheraton hotelean eta honako hauek parte hartuta: Nuria López de Gereñu, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saileko Sailburua; Andrés López Pita, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Trenbideetako Katedraduna, eta Jon Azua, Enovatinglab, S.L.ko lehendakaria eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde ohia.

Martxoak 31:

- “Azkoitia- Azpeitia. Abertzaletasunaren 100 urte” erakusketaren inaugurazioa Azkoitian

Apirilak 13:

- “¡Nunca Más! Imágenes de guerra (1936-1939)” erakusketaren inaugurazioa Elorrion

- “Nacionalismo vasco en Elorrio (1894-1937)” liburuaren aurkezpena Euskadiko Kutxaren erakustaretoan.

14 de abril:

- “Elgeta Gerra zibilean” erakusketaren inaugurazioa Elgetako Espaloioa antzokian.

Apirilak 17:

- ““Lurzorua eta etxebizitzak, bizitzeko modukoak” mintegiaren 2. Zatia, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.

Apirilak 19:

- “Elgeta. Gerra zibilan” erakusketaren inaugurazioa.

- “Azkoitia- Azpeitia. Abertzaletasunaren 100 urte” erakusketaren inaugurazioa Azpeitian.

- Mahaingurua: “Presidentetzarako hauteskundeak frantzian: dena erabakitzeke” (Allende-Boutin eta Patrick Pepin) kazetariak parte hartuta eta a Juan José Álvarez Rubio EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna artezkari.

Apirilak 20:

- Memoria historikoaren berreskurapenari buruzko ikastaroa Elorrion.

Apirilak 21:

- Sabino Arana Fundazioak antolatutako IV. Bertso Paperen Lehiaketako sari-banaketa Tolosako Leidor antzokian eta "The Uski's"en emanaldiak lagunduta.

Apirilak 25:

- Gernikako bonbardaketari buruzko hitzaldia Bizkaiko foru-hiriko Elai Alain, historialari hauek parte hartuta: Klaus A. Maier, Manuel Montero, Ferdinando Pedriali, Nicholas Rankin eta Jesus Salas Larrazabal.

Ekainak 2:

- Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen Hermes aldizkariaren 23. zenbakia kaleratu; gai nagusia: "Prostituzioa: erregulatu gabeko negozioa".

Ekainak 19:

- Mahaingurua: "*Nafarroaren "ezetza" Hego Euskal Herriko Estatutuari. Iruñeko 1932ko Batzarra*", Iruñeko Maissonave hotelean egin zen honako hauek parte hartuta: Santiago de Pablo EHUko Historia Garaikideko katedradunak; Fernando Mikelarena Historian doktore eta Zaragozako Unibertsitateko irakasleak; Emilio Majuelo Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) katedradunak eta, solas-zuzendari zereginetan, Jose Ignacio Lacasta-Zabalza Zaragozako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna.

Ekainak 28:

- Liburu-aurkezpena: "*Un nuevo 31. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo*", Bilbon, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Liburuaren egileak: Iñaki Goigana, Xabier Irujo eta Josu Legarreta.

Irailak 18:

- Luis de Sebastián ESADEko Ekonomia katedradunaren hitzaldia "Afrika. Bakea, adiskidetzeta eta demokrazia" hitzaldi-sortaren barruan, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan.

Irailak 27:

- Boli Kostako Langileen Alderdiko (PIT) idazkari nagusi eta sortzaile Francis Romani Wodiéren hitzaldia "Afrika. Bakea, adiskidetzeta eta demokrazia" hitzaldi-sortaren barruan, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan.

Urriak 10:

- Carlos Garaikoetxea lehendakariaren hitzaldia: "Euskadi munduan. Hiru lehendakariaren gogoetak" hitzaldi-sortaren barruan, Bilboko Euskalduna jauregian.

Urriak 23:

- Jose Antonio Ardanza lehendakariaren hitzaldia: "Euskadi munduan. Hiru lehendakariaren gogoetak" hitzaldi-sortaren barruan, Bilboko Euskalduna jauregian.

Urriak 30:

- Mahaingurua: "LORAFNaren XXV. urteurrena: foraltasun estatikoa", Iruñeko Tres Reyes hotelean, eta hauek parte hartu zuten: Jose Antonio Urbiola, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea 1979 eta 1981 bitartean; Fermin Ciaurriz, letratu, Nafarroako Parlamentuko parlamentaria, EAren ordezkari gisa, zenbait legegintzalditan eta Parlamentuko lehen lehendakariordea 1991-1995 bitartean, eta Alvaro Baraibar Historian doktorea.

Azaroak 5:

- Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen Hermes aldizkariaren 24. zenbakia kaleratu; gai nagusia: "Euskal Y-a"

Azaroak 6:

- Liburu-aurkezpena: Leyre Arrietaren "Estación Europa. La política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977)".

Azaroak 7:

- Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren hitzaldia: "Euskadi munduan. Hiru lehendakariaren gogoetak" hitzaldi-sortaren barruan, Bilboko Euskalduna jauregian.

Azaroak 14:

- Mintegia: "Afrika. Bakea, adiskidetzea eta demokrazia", Sabino Arana Fundazioaren egoitzan egin zen honako hauek parte hartuta: Jean Nsonjiba Lokenga, Pax Romanako Munduko Lehendakaria, yeta Karlos Pérez de Armiño, EHUko Nazioarteko Harremanak saileko irakasle titular eta "Hegoa"ko kidea.

- Jean Nsonjiba Lokenga Pax Romanako Mundu osorako lehendakariaren hitzaldia "Afrika. Bakea, adiskidetzea eta demokrazia" hitzaldi-sortaren barruan, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan.

Azaroak 20:

- Mintegia: "Europa bidegurutzean: Batasunaren Itun berria", Bilboko Euskalduna jauregian egin eta bertan partehartzaile izan ziren: Juan Jose Ibarretxe, Lehendakaria; Pasqual Maragall, Presidenta; Álvaro Gil Robles, Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako komisarioa 1999-2006 epealdian; José Martín y

Pérez de Nanclares, Errioxako Unibertsitateko Kanpo Harremanetarako errektoreordea, eta Antonio Martins da Cruz, Enbaxadorea eta Atzerri Gaietarako ministro ohia.

Azaroak 23:

- Jardunaldia: “Euskararen Legea. 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan”, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak antolatuta; Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan egin zen honako hauek parte hartuta: Andrés Iñigo, Joseba Intxausti, Jose Luis Lizundia, Gotzon Egia, Anaje Narbaiza, Manuel Ruiz Urrestarazau, Mikel Zalbide, Julian Beloki, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Sagrario Aleman, Erramun Baxok, Jean-Baptiste Coyos eta Erramun Osa.

Azaroak 28:

- Alcides Sakala Angolaren Erabateko Independentziarako Batasun Nazionalaren (UNITA) parlamentu-taldeko presidentearen hitzaldia “Afrika. Bakea, adiskidetzeta eta demokrazia” hitzaldi-sortaren barruan, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan.